



Segura bizirik

**Kilometroak 2003
Lazkaon**

**Jatorrizko euskal
animalien
erakusketa
Ormaiztegin**

**Odilo Rivela
Europako Wu Shu
txapelketan**



GARMENDIA
Tejas y cubiertas S.L.

Maioz industrialdea, 25-26 ORDIZIA
Tel. : 943 161 032 / Faxe: 943 160 842



VACSOL - WRR TRATAMENDUA EGURRARENTZAT



OHOL ETA ALTZARIEN TRATAMENDUA

Edozein motatako teilatuak
egiteko prestatuak,
komunitateak, baserriak,
txaletak eta abar



Kontzesionario berri hau leku estrategikoan dago, gure herrialdeko edozein lekutatik erraz iristeko.

EUROLAN 4x4 jaio da

Kontzesionario
kontzeptu berria

Gipuzkoako automobil mundua, eta zehazki
todo terrenoen sektorea, zorioneko dago.

**EUROLAN 4x4. Motor munduan
kontzesionario kontzeptu berria.**



Kontzesionario berri hau Hernaniko Jau-
regi auzoan, Galarretako erretondaren on-
doan, kokatua dago, helburu bakar baten-
gan pentsatu eta eraikitako eraikuntza ba-
tean: gure herrialdeko kontzesionario
kontzeptu berriaren erreferentzia puntu
izatea.

*«Gure herrialdeko
kontzesionario kontzeptu
berriaren erreferentzia puntu
izatea».*

EUROLAN 4x4 nortasun handiko
eraikuntza handi eta argitsu batean dago.
Bereziki zerbitzu moderno, integral eta
lehiakorra eskaintzeko diseinatua, gero
eta esigenteagoa den herritarren beharrei
erantzuteko.

Kontzesionarioaren goiko solairuan
ibilgailu berrien erakusketa eta bulego ko-
mertzialak daude. Espazio zabala da,
Land Rover todo terreno guztien gama
perspektiba guztietatik gozatzeko.

Beheko solairuan tailerra dago. Sekto-
re honetan hain garrantzitsua den azken
aurrerapen teknologikoak dituen tailer
moderno. Garantia guztiak eskaintzen
dituen zerbitzu eskusiboa.

*«**EUROLAN 4x4** nortasun
handiko eraikuntza handi eta
argitsu batean dago.»*

Gainera, **EUROLAN 4x4** erreferen-
tzia bihurtuko da, bezeroenganako arreta-
gatik. Langile guztiak, bezeroen beharrei
erantzuteko burubelarri ari dira. Ahalik

eta azkarren kalitateko zerbitzua eta tratu
esklusiboa eskainiz enpresako arlo guztie-
tan.

Azken batean, gipuzkoar guztiok dago-
eneko goza genezake, gugandik oso gertu,
autoen munduan iristear daukagun kon-
tzeptu berriaz:

EUROLAN 4x4.



Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkarte
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean)

124 posta-kutxa ORDIZIA

Tfnoa: 943 88 96 12

Faxa: 943 88 27 19

E-mail:

goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Publizitatea: Argider Mujika

Zenbaki honetako kronista eta

kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Edurne Soraluze, Agurtzane Bikuña, Aitziber Murua, Iñaki Ugalde, Mari Flor Mendizabal, Aimar Maiz, Pello Barandiaran eta Xabier Akizu.

Fotokonposizio eta maketazioa:

Goierritarra

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 7.300 ale

SSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen
derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaularitzako
Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta
GOIERRIKO UDALEK
diruz lagundutako
aldizkaria



Azaroak 2:

Beasaingo Odolki txapelketa

Beasainen, Udazken Kulturalaren barruan, eta azaroa iristearekin batera, odolki txapelketa jokatu izan ohi da. Aurten ere iritsi zaio eguna: azaroaren 2an izango da. Odolkiaren errege edo erregina berria izendatzeko eguna izango da, harakinen artean hain preziatua den izendapena. 2001. urteko odolkiaren erregea, Ordizia-ko Manuel Barandiaran izan zen. Bolada onean dugu gainera Manuel Barandiaran, besteak beste, azkeneko iraileko Ordizia-ko saria berak irabazi baitzuen.

Beasaingo Odolki kofradiak antolatzen duen lehiaketak XVIII. edizioa izango du aurten. Goierriko, Tolosaldeko eta Urola Garaiko harakinek hartzen dute parte. Ohi bezala, epaimahaia, sukaldari ezagunek eta Beasaingo Odolki Kofradiaren bazkideek osatuko dute. Odolkiak plazan bertan egosiko dituzte antolatzaileek.

Irabazleak, ohiko oroigarria jasotzeaz gain, erronka bat ere jasoko du: otsailaren 5ean Beasainen ospatzen den Loinazko San Martin egunean Odolkiaren Kofradiak egiten duen uteroko bazkarirako odolkiak prestatzea.

Lehiaketaz gain, herritarrek odolkiak dastatzeko aukera ere izango dute. Antolatzaileek odolki pintxoak eta edaria saltzen jarriko baitituzte. Eguerdiko 12etan emango zaio hasiera odolki lehiaketari, ohi bezala, Loinazko San Martin plazan jarriko duten oholztan.

Bertako produktuen azoka

Odolkiak gain, bertako produktuen azoka ere egingo da egun berean Loinazko San Martin plazan, goiza osatzeko. Bertako produktuekin egingo den azoka berezi honetan, Euskal Herriko hainbat produktu erosi ahal izango dira, goizeko 10etatik aurrera egongo diren postu ezberdinetan.

Goierritarra Goierrikan kanpo jaso nahi dutenenentzat, posta gastuak ordaintzeko tarifak:

Hego Euskal Herria eta Espainia:
Ipar Euskal Herria eta Europa:
Europaz kanpo:

urtean 12 euro
urtean 24 euro
urtean 36 euro

Rafael Berasategi aske

Irailaren 29an Guardia Zibilak Rafael Berasategi segurarra atxilotu eta urriaren 3an libre gelditu zen, inongo kargurik gabe, epailearen aurretik pasatu ondoren. Urriaren 3an bertan, ongi etorria egin zioten Seguran. Berasategik torturak salatu ditu.

Juan Mari Olano

Parisko Kasazio Gorteak atzera bota du Juan Mari Olanoren estradizio onarmenari jarritako errekurtsioa. Forma juridiko aldetik zeuden erregulartasunengatik jarri zuen defentsak errekurtsio hau. Orain Estatu Kontseiluan beste errekurtsio bat jartzeko asmoa agertu dute.

Esperientzia Eskolaren ikasturte berria

Urriaren 15ean hasi zen Goierriko Esperientziaren Eskolaren bigarren ikasturtea. 20 ikasle izango dira aurtan. Hirugarren adineko gizon eta emakumei ikasketak egiteko aukera dute goierritarrek, Goierri eskolako Ingenieri Teknikoen eskolan.

Iaz izan zen lehenengo esperientzia eta 16 lagunek egin zituzten ikasketak. Ikasturte hasierako ekitaldian, aurtengo ikasleei ongi etorria eman eta iazkoei diplomak banatu zitzaizkien.

Goierriko Esperientziaren eskola, Matia Fundazioak, Goieki eta Uggasak elkarlanean sortutako ekimena da, eta Foru Aldundiko Gizartekintza sailaren babes eta laguntza du.



Emakumezko ekintzaileentzako enpresa kudeaketa ikastaroa

Goiekiko Inkubategiaren zereginen artean enpresa egitasmo bat joratu nahi duten pertsonen formazioa eta aholkua ematea dago. Urtero formazio ikastaro berezia antolatzen du jarduera berriei bultzada bat emateko helburuarekin. Emakumezkoen artean langabezi tasa handia dela eta, aurtan bereziki, kolektibo honi zuzenduriko ikastaroa eskainiko du Goiekik, urriaren 21etik aurrera: 'Emakume ekintzaileentzako enpresa kudeaketa ikastaroa'.

Urriaren 21etik azaroaren 21era, gai ezberdinak landuko dira ikastaroan: bideragarritasun planaren elaborazioa, enpresa kudeaketa, enpresa sortzeko ideia, ekonomia-finantza arloa, eta zuzenbide eta langintza arloa. Ikastaroaren ordutegia: urrian, goizez, 9etatik 1era eta azaroan, arratsaldeaz, 3etatik 7etara. Izen ematea eta informazio gehiago, Goiekin, 943 161831 telefono zenbakian.

OSTEOPATIA

Jose Gisasola Dr. R.P.S. 213/97

- LUNBAGO, ZIATIK, HERNIA DISKAL
- ZERBIKALGIA, ZEFALEA, MIGRAIN, ARTROSIS.
- TENDINITIS, KIROL LESIOAK.

Eskatu ordua: ☎ 629 45 20 53
Andra Mari, 13 beheak ez. - BEASAIN

ARRIETA

JATETXEA

☎ 943 88 00 02 OLABERRIA

Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa
zuri esker

gizarte ekintza

Mexiko Hiriko metrorako 17 tren egingo ditu CAF-ek

Kanadako Nombardierre enpresarekin elkarlanean irabazi du CAF-ek Mexiko Hiriko metrorako 45 tren egiteko kontratua. Kontratua orotarra 428,5 dolaretakoa da. Kontratu horretatik 17 tren egingo ditu CAF-ek, bakoitza 9 ibilgailukoa. Lan horren truke 184 milioi euro jasoko ditu. CAF Mexikon errotuta dagoela esan liteke, bertako metroko azken 3 lehiaketak (1992ko, 1995ekoa eta aurtengoa) irabazi baititu.

Azken aldian industri krisiaz asko hitz egiten bada ere, CAF-en jarduera goraka doa eten gabe. Momentu honetan 1.300 milioi eurotako eskaria dute. Gainera, Europar kontratu bat itxi nahian ari dira eta beste hainbat ere ari dira negoziatzen.

Ehiza istripua

Urriaren 12an Zaldibian gertatutako ehiz istripuan hil zen Joxe Barandiaran Iztueta 48 urteko lazkaotarra. Lagun taldea basurde ehizean zebilela, gertatu zen zoritxarreko istripua eta tiroa nork egin zuen garbi ez dago. Ertzaintza lortutako datu guztiak aztertzen ari da.

Iñaki Mendigurenentzat itzulpengintza arloko Euskadi saria

'Harry Potter eta sekretuen ganbera' lanarekin irabazi du Ezkioko idazle eta itzultzaileak aurtengo Euskadi saria itzulpengintza arloan.

Unai Elorriagari zorionak

Unai Elorriaga Lopez de Letona idazle algortarrak, 'SPrako tranbia' izeneko bere lehenengo liburuarekin irabazi du 2002ko Espainiako Narratiba Saria. Beasaingo Udalak zoriondu egin nahi izan du Unai Elorriaga izan ere, Unai IV. Igartza Literatur Sorkuntzarako Beka irabazi baitzuen 2001ean "Hilerriak eta hiztegiak" izeneko proiektuarekin. Orain, eleberria jada bukatua du eta 2003ko martxoan argitaratu eta aurkeztuko da liburua.

Potrotaino: disko berria

Ordiziako musika taldeak 'La verdad comienza aki' diskoa aurkeztu zuen urriaren 9an Bilbon, Oihuka disketxearekin. Bide komertzialetik kanpo egindako diskoa da berau.

hilean euro 1
Goierritarra
etxean jasotzeko

Izen-abizenak:

Helbidea:

Herria:

Telefona: **Adina:** **NAN:**

Kontu zenbakia (20 digitu):

Goierritarraren harpidedun naiz
eta hala izaten jarraitu nahi dut ☐

Ez naiz Goierritarraren harpide
eta hemendik aurrera izan nahi dut ☐

**Bidali txartel hau helbide honetara: Goierritarra, 124 Posta Kutxa, Ordizia
eta posta gastuak ordaintzeko urtean 12 euro (2.000 pezeta inguru)
kobratuko dizkizugu zure kontu korrontetik**



Pello Barandiaran

Gertu aholkularitza

Seme-alabak dituzten familientzako dirulaguntzak

Nork jaso ditzake dirulaguntzak?

- Aitak edo amak, beti ere, guraso-agintetik baztertuak izan ez badira. Bieta-ko bat baztertua izan bada, onuraduna guraso-agintea duen aita edo ama izango da.

- Banaketa edo dibortzio kasuetan, epaileak seme-alaben zaintza eman dion gurasoak jasoko du laguntza.

Laguntza hauek jasotzeko, onuraduna, Euskal Autonomia Erkidegoko edozein herritan erroldaturik egon behar da.

Zenbatekoak dira laguntzak?

- Seme-alaba bat jaio edo adoptatzeagatik emango diren laguntzak:

- ✓ Bigarren seme-alabaren jaiotza edo adopzioagatik, 1.100 euroko dirulaguntza.

- ✓ Hirugarren eta hurrengo seme-alaben jaiotze edo adopzioagatik

1.100 euroko dirulaguntza emango da urteko, bost urte betetzen dituen bitartean.

- Ume bat baino gehiagoren jaiotza edo adopzioagatik emango diren laguntzak:

- ✓ Bikiak edo bi seme-alaba adoptatuz gero, 2.600 euro urteko, seme-alabek hiru urte bete arte eta 1.200 euro urteko, seme-alabek hamar urte bete arte.

- ✓ Hirukiak edo hiru seme-alaba adoptatuz gero, 4.000 euro urteko, hiru urte bete arte eta 2.400 euro hamar urte bitarte.

- ✓ Laukiak edo lau seme-alaba adoptatuz gero, 5.400 euro urteko hiru urte bete arte eta 3.600 euro hamar urte bitarte.

- ✓ Bost edo gehiago batera jaiotzen edo adoptatzen badira, aurreko kopuruei 1.400 euro erantsiko zaizkie lehen hiru urteetan eta 1.200 euro

hurrengo zazpi urteetan.

Diru laguntza ematen zaion seme-alabaren batek %33ko edo gehiagoko ezintasuna badu, kopuru hauek bikoiztu egingo dira seme edo alaba horri dagokionez.

Eskariak aurkezteko epea

Jaiotza edo adopzioa dekretua indarrean sartu ondoren eman bada, jaiotzetik edo adopzioa eman denetik hiru hilabeteko epea dago eskaera aurkezteko.

Dekretu hau indarrean sartu baino lehen izan bada, 2002ko azaroaren 30a baino lehen aurkeztu behar da eskaeria.

Non aurkezten dira eskariak?

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren Lurralde-ordetzkaritzetan aurkeztu behar dira. Gipuzkoan, honako helbidean: Vitoria-Gasteiz kalea, 3-2. Donostia. Telefono zenbakia: 943-023 200.

2002ko abuztuaren 7an Euskal Autonomi Elkarteko Aldizkari Ofizialean 176/2002 Dekretua argitaratu zen. Bertan, seme-alabak dituzten familiei zuzenduriko dirulaguntzak arautzen dira. Oro har, seme-alabak dituzten familiek izan ditzaketen arazo ekonomikoak areagotzea du helburu dekretu honek.

Zein kasutan ematen dira laguntzak?

- Bigarren seme edo alaba jaiotzean edo adoptatzean.
- Hirugarren edo hurrengo seme edo alaba jaiotzean edo adoptatzean.
- Ume bat baino gehiago batera jaiotzean edo adoptatzean.



Errehabilitazioa

Fisioterapeuta behar da

943 88 12 71

Andra Mari kalea, 11-1.B

BEASAIN

HORTZ KLINIKA



CAMPAGNOLE Doktorea
Zirujau dentista

473 zki. kolegiatua

Bere hortz klinikaren zabaltzearen berri ematen dizue.

Odontologia, haur eta helduentzako ortodontzia, periodontzia eta hortz inplanteak jartzen ditugu.

Nafarroa etorbidea, 8 - 1.A

BEASAIN

☎ 943 085 229



Sagarrak arboletatik?

Udazkena, mendian paseatzeko garairik atseginena askorentzat, baso, zelai, baserri inguru, sagasti... ze poz berezia ematen duten arboletatik zintzilikaturik kulunkatzen diren eguzkitxo berde-hori-gorriak!

Arbolak urtean zehar bildu duen argi eta berotasunaren parte handi bat eskaintzen digu gure lanaren ordainetan fruitu bezala elikadura orekatu baterako.

Horraino bai, iristen gara ikustera! Baina hortik aurrera?

Nekez ikusiko ditugu sagar / udare horiek gure mahaian! Ez, gure mahaian itxura bai, baina zapore gutxiko eta auskalo

zenbat tratamendu kimiko jasandakoak aurkitzen ditugu. Izan ere, badirudi uste dugula -amerikarkumeek bezala- jateko sagarrak supermerkatuetako apaletan hazten direla laborategi transgenikoetan bezala!

Eta non dira liluratu gaituzten hemengo sagar horiek? San Juan, San Pedro, San Ignazio, Andra Mari s., Erregen Errégina, Goizeko horia, Bost Kanto, Errege nabarra, Errege Gorria, Errege Beltza, Oru sagarra, Ama Birgina s., Napar horia, Urtebi, Errexila, Urdin eta beste asko eta asko??? Gaziak, gozoak, gezak, gazi-gozoak, mikatz puntua dutenak....

Sagar guzti hauek, beren berezitasun eta aberastasunekin... gero eta jende gutxiago doan azoketan, denda bazterren baten edo behi askan -horiek bai aprezioa egin!- aurkituko ditugu. "Zer egingo diogu ba, kaleko sagar jakin batzuk besterik ez baititu jendeak erosi nahi!"

Eta kaletarrok kexatu egiten gara gero eta pinu gehiago dagoela, konturatu gabe geu garela sar arazten ari garenok! Nork landatu eta zainduko ditu sagastiak, sagarrak saldu ezinik ibili behar badu?

Geu gara -erosleok- biharko baserria, paisaia, biodibertsitatea... diseinatzen ari garenok eguneroko erosketatxoaz. Honetaz ohartzen garen neurrian nola aldatuko den gure Euskal Herria!

Xabi Akizu

JAKIN BEHARREKOA

✓ **Energiarik garbiena, gutxien kutsatzen duena, erabiltzen ez dena da.** Beraz, ahalik eta gutxien erabiltzea izango de neurririk egokiena. Energia aurrezteak alegia. Mundu mailan energi eskaririk handiena estatu batuarrena da %29,4rekin, gero asiarrena da %26arekin. Europar Batasunak %16,6koa du. Afrikak %3. Euskadin, energi kontsumoa, 1980. urteko maila berdina du, ez da aldatu. Geroz eta gehiago kontsumitzen den garai hauetan txalogarria da.

✓ **Ba al zenekien? Oreinak eta orkatzak urtero botatzen dituzte beren "adar" edo adakerak.** Zezenak, akerrak, ahariak berriaz adarrak mantentzen dituzte. Adarraren eta adakerraren jatorria desberdina da, lehena gaztelaniz "cuerno" litzateke eta bestea "cuerna".

✓ **Euskal Herrian kontsumitzen den elektrizitatearen %30 kanpotik ekarritakoa da.** Bidean, distantziarengatik %5eko galera izaten du.

✓ **2005erako Euskadin 1995eko energia eskaera guztiaren %10 aurrezteak izango da aurreikusitako helburuetariko bat.** Ingurugiro aldetik negutegi efektua sortzearen arrazoi nagusienetarikoa dugun CO₂a, urteko 1.023.000 t. emisio, gutxitu egin nahi da.

"Geu gara, erosleok,
biharko baserria,
paisaia,
biodibertsitatea...
diseinatzen ari garenok
eguneroko
erosketatxoaz. Honetaz
ohartzen garen
neurrian nola aldatuko
den gure Euskal Herria!

Landar Lan taldeak egindako orrialdea

Taldean parte hartu edo gairen bat aportatu nahi baduzu: ☎ 943 16 12 44

Kate motzean

- Armategi batentzat urria-azaroa izaten al da garairik onena?

Dударик gabe, bai. Halere urtean zehar ere lan dezente egiten dugu. Adibidez, Gabonetan edo arrantza garaian.

- Zer da gehiena saltzen dena?

Oso zaila da zehazten baina agian kopuruagatik, kartutxoak edo arropa asko saltzen da.

- Zu ehiztaria al zara?

Txikitatik izan dut afizioa, batik bat aita eta anaia ehiztari peto-petoak direlako.

- Zein ehiza mota duzu gustuko?

Usotara joatea gogoko dut, baina oilagorren ehiza da ehiztarien artean troteorik handiena.

- Ehiza hobby garestia al da?

Galdera oso erlatiboa da. Otegi armategian saiatzen gara mota ezberdinetako aurrekontuetara ailegatzen.

- Ehizerako leku bat:

Ehiza asko dagoen edozein leku.

- Oporrak ehiza garaian hartzen dituen horietakoa al zara?

Negozio honetan oporretarako denbora gutxi daukagu. Beti da zerbait. Halere anaiak eta koinatak laguntzen didate eta oporrak txandatz hartzen ditugu.

- Arrantzalea ere ba al zara?

Arrantzan nire anaia Juanjo dugu espezialista. Gurutze koinata eta neuk salmentan ematen dugu egun guztia.

- Ehiza edo arrantza nahiago?

Hau konpromisoa... Biak kirol sano eta politak dira. Norberak erabaki beharreko gauza da.

- Zakur ona beharrezkoa al du ehiztariak?

Behar-beharrezkoa ez da, halere ehizeko txakur on batek, dezente laguntzen du ehizatzekeo garaian. Betidanik esaten da,

txakurra gizonaren lagunik onena dela, ezta?

- Eta arropa?

Nire ustez garrantzia handia dauka. Azken urteetako joerak dioenez, jendeak geroz eta gehiago, kalitatezko arropa erosten da. Urruti geratu dira antzinako joerak, eta gaur egun arropa tekniko gehiago saltzen da.

- Eta kartutxoak?

Kartutxo guztiak berdinak direla esango banu, gezur galanta esango nuke. Ondo aukeratu beharra dago eta bezeroak horretan saiatzen dira.

- Inoiz penarik sentitu al duzu hegaztiren bat botata?

Ez dut uste penarik sentituko nukeenik, bestela, ehiztariak izan beharrean ekologistak izango ginateke.

- Nork lumatu eta prestatzen du ehizatutakoa?

Gure kasuan behintzat, betebeharrak horiek amaren eskutan uzten ditugu. Noiz behinka geuk egiten dugu, baina orokorrean etxekoandreak egiten dute.

- Jateko zer da goxoena?

Edozein ehiza mota, baina mimoz eta borondatez prestatuz gero. Pertsonalki, nire amak prestatzen dituen edozein platerekin geratzen naiz, baina uste dut hori normala dela. Askok ikasi beharrean gaude.



Iñaki Otegi
(Otegi armategia)

URBITARTE
tolare
sagardotegia



Erretegi modura zabalik
Sagardoa txotxetik dastatzeko aukera

Tel.: 943 18 01 19

Ergoiena Auzoa ATAUN

UNTXUNDEI
garajea


OSINALDE
karrozategia

☎ 943 88 28 21

☎ 943 16 07 06

ORMAIZTEGI

IBAI ONDO



ARROZTEGIA

Logela, egongela eta sukaldeko altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea

Altzariak neurritan

Mota guztietako arroztegi lanak

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47

Poltsikoko telefonoa: 639 631 640

Antzizar-Katea, 5 **BEASAIN**

GOIERRIKO ODOLKIGILEAK



Arg.: Xabier Mujika

OIANGUREN HARATEGIA



- ✓ Odolki eta mondejuak
- ✓ Txorizo eta tripakiak
- ✓ Baserriko haragia

Gipuzkoa, 15 ☎ 943 88 01 42 **ORDIZIA**

HESTEBETEAK



"ORMAIZTEGI"
ODOLKIAK

Nekazaritza eta
Arrantza Sailak
baimendua

JESUS MARI DEBA


- Barazki eta arroz-odolkiak
- Mondejuak

Bereziak harategi eta
jatetxeetarako

Anduaga Industrialdea, 9
Zumalakarregi Plaza, z/g

☎ 943 72 17 10
☎ 943 88 26 59

**EZKIO-ITSASO
ORMAIZTEGI**



OIARBIDE HARATEGIA

Odolkiak eta bertako haragia

Elosegi, 52
Elosegi, 15

☎ 943 88 17 17
☎ 943 16 05 16

LAZKAO

Oiano
Harategia

KALITATEKO
**EUSKAL
OKELA**



Odolki eta
etxeko haragitan
bereztasuna

Andra Mari, 3 ☎ 943 88 07 78 **BEASAIN**



iñaki Zubeldia
Harategia Urdaitegia

KALITATEKO
**EUSKAL
OKELA**

Bertako haragiak,
odolki, lukainka,
saltxitxa eta aurrez
prestatutako
janariak

K. Nagusia, 14 ☎ 943 88 27 47 **BEASAIN**

J. MUJIKA Harategia



Nafarroa Etorb. 31 ☎ 943 88 04 88
BEASAIN

Nagusia, 16 ☎ 943 88 18 32
Gipuzkoa, z/g ☎ 943 88 08 78
Etxea ☎ 943 16 06 02

ORDIZIA

IÑAKI KANPOS AUTOZERBITZUA

KALITATEKO
**EUSKAL
OKELA**

- ✗ Bertako haragia
- ✗ Odolki, txorizo eta tripaki bereziak



Zumalakarregi, 4 ☎ 943 88 28 27 **ORMAIZTEGI**

Manuel Barandiaran HARATEGIA



2001. urteko
odolki
txapeldun
Beasainen eta
aurtengo
txapeldun
Ordizian


Kale Nagusia, 32 ☎ 943 88 18 91 **ORDIZIA**

**ZUTIKAKO
SOLARIUMA**


**ILEARENTZAT
TRATAMENDUAK**

**KOSMETIKA
OSAGAIK,
BISUTERIA**

**MAKILAJEA,
MANIKURA**




Urriaren
26ko
ileapaindegien
desfilean parte
hartzaile



JOS-BEL. ILEAPAINDEGIA

© 943 88 82 52 Ordua aldez
aurretik eskatu
Urdaneta, 15 ORDIZIA

AURKITU
EUROPAKO 10 HIRIBURU



**Asmoak burutik
kendu ezinda?**

Bada, Gaztekutxan aurkituko dugu,
elkarren artean, zure asmoentzako
burubiderik onena.

BADAKIZU. GAZTEKUTXAN
HASTEN DA ZURE ETORKIZUNA



gaztekutxa

www.gaztekutxa.net

Urriak 20:

Jatorrizko euskal animalia espezien III. erakusketa Ormaiztegin

Hirugarren urtez jarraian, datorren igandean, urriak 20, jatorrizko euskal animalia espezien III. erakusketa izango da Ormaiztegin. Animalia espezie ezberdinak gertu-gertutik ezagutzeko aukera izango da goizean. Arratsaldean, berriz, ekitaldi berezia izango da: pottoka eta terreña arteko dema, 500 kiloko lerarekin.

Ormaiztegiko Zelaian eta Zubipe kiroldegia inguruan, Euskal Herriko berezko espezieetako abereak bertatik ikusteko aukera izango da. Bertan aurkeztuko diren abere horietatik asko bertako arrazak izateaz gain, desagertzeko arriskuan ere badaude. Azken urte hauetan abere horien egoeraz oharturik, hainbat elkarte eta gizabanakoen etenik gabeko lanari esker, abere horiek babeste eta desagertu ez daitezen ahalegin berezia egiten ari dira.

Abere horiek kontserbatu eta bultzatzeak duen garrantzia oharturik, Gipuzkoan Euskal Herriko berezko espezie horrelako erakusketa bat antolatzea oso interesgarri eta beharrezkotzat jo zen berezko



Egitaraua

10:00etan: Euskal animalia espezien III. erakusketaren irekitze ofiziala.

11:00etan: Betizu, terreña eta pirenaiken aurkezpena.

11:30ean: Euskal Herriko Erleen elkartekideen Euskal Herriko Erlearen aurkezpena. Ele elkartekoen latxa ardien aurkezpena. Gipuzkoako asto-zaleen elkarteko kideen Enkarterrieta-ko astoaren aurkezpena.

12:00etan: Pottoken aurkezpena, lehiaketa morfologikoa eta sari banaketa.

12:30ean: Goizean zehar erakus gunean erreko diren arkumeak dastatu eta Euskal Oilozaleen Elkarteko kideek oiloarekin prestaturiko salda dastatzeko aukera izango da.

14:30ean: Partaideentzat, bazkaria.

17:00etan: Pottoka eta terreña arteko dema, 500 kiloko lerarekin, Zelaian.

18:00etan: Betizu Txikien sokamuturra.

espezien hainbat elkarte, Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurugiro Sailaren eta Ormaiztegiko Udalaren aldetik. Goimen eta Irizar kooperatibaren babesa

eta laguntza ere badu azoka honek.

Ohi bezala, aurtengo erakusketan ikusgai izango diren abereak hauek dira: Euskal Herriko mendiko zaldia, Bur-



gete, Jaca Navarra, sasiardia, Euskal Herriko erlea, bertako ibai karramarroa, pottoka, euskal oiloa, ardi latxa, mutur gorria, ardi latxa mutur beltza, Karrantzako ardiak, euskal txerria, Enkarterrietako astoa, ahuntz azpi-gorriak eta beste hainbat eta hainbat.

Goizean, 10etatik 2,30etara, erakusketarako egokituriko gune berezietan jatorrizko euskal animalia espeziez osaturiko erakusketa zabalik egongo da. Gune bakoitzean megafoniaren bitartez elkartekideek euskal animalia espezie bakoitzari buruzko argibide zuzenak azalduko dizkiete bertara hurbilduko diren ikusleei.

Elkarte bakoitzak jatorriko euskal animalia espezieetatik ekoizturiko produktuak salgai jarriko ditu. Hori guztia, herriko trikitilariak alaiturik.



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
943 88 87 02
BEASAIN

KEMEN KIROLAK



Zumalakarregi, 1
943 88 51 68
ORMAIZTEGI

Segurako Udalaren kanpaina:

'Baserria bizirik, dendak bizirik, herria bizirik'

Segurako baserritarren, ganaduzaleen eta denden egoera kaxkarra ikusita, herrian bertan, bertako produktuak erosteak, herriari dakartzkion onurez sentsibilizatu nahi ditu Segurako Udalak herritarrak. 'Baserria bizirik, dendak bizirik, herria bizirik' leloa jarri dio kanpainari.

Bai baserritarrak eta bai dendariak, orain artean, elkarren arteko harremanik gabe aritu izan dira Seguran, bi sektoreen egoera larria izanda ere. Udalak, bi sektore hauen arteko harremanak bultzatu nahi ditu, herri bizia nahi dutela aldarrikatu eta herritarrak kontzientziatzeko.

Herritarren erosketa ohiturak kontuan izan da, Luis Mari Telleria, Segurako alkateak prentsaurrean adierazi zuenez, "kontzientzia gutxi daukagu herritarrok: bakoitzak bere buruari begira, herri ikuspeirik gabe, inguruko saltoki handietan erosketak eginez eta herriko zerbitzuen gainbeheraz konturatu gabe".

Goimenekin harremanetan eta bere dirulaguntzarekin burutuko dute kanpaina hau segurarrek. Goimeni oso beharrezko iruditzen zaizkio era honetako dinamikak. Joxe Manuel Zubizarreta bertako arduradunak adierazi zuenez, "baserria, dendariak, herritarrak elkartzen dituen dinamikak oso beharrezkoak dira. Jendearen inplikazioa baino gehiago konplizitatea bilatzen da. Bakoitzak bere ara-



Segura datuetan

72 baserri daude Seguran: 32 era mixtoan aritzen dira eta 8 baserritik bizi dira. Segurako baserrien egoera aztertzeko ikerketak burutu dute Asier Galdosek eta Jakoba Errekondok. Ikerketaren arabera, ondorio hauek dituzte: Euskal Herriko, Gipuzkoako eta Goierriko baserriko egoera berdina dago Seguran.

Hori bai, baserrietan jende asko bizi da; segurarren %15,3. Goierriko batazbestekoarekin alderatuz, bikoitza da portzentajea. 72 baserrietatik 60etan jendea bizi da. Erdiek baino gehiagok aktibitate ekonomikoren bat dute baserritik. Arazo larria ondorengo belaunaldien ordezkapena izango litzateke. Baserrien %58a ordezkapenik gabe geldituko litzateke. Gaur egun beteta dauden 60 baserrietatik erdiak hutsik geldituko lirateke. Baserrietako ezkongabeen tasa ere handia da. Denetik lantzen da gehienetan, produkzio aldetik ere mixtoak dira. Goierriko beste herriekin alderatuz, lurrik gehien duen herria da Segura; 60 Hektarea. Madurako lurra daude hor. Geroari begira, ikerketaren bat egin beharko litzateke, lurraren antolamendu moduren bat aurkituz.

Denden egoera

Zortzi denda daude gaur egun Azken 30 urteetan asko aldatu dira herritarren erosketa ohiturak. 80ko hamarkadan, merkatal gune handiak sortu ziren, herriko dendak, "ahaztutako enkar guak egiteko lekuak" bilakatu ziren. 90. hamarkadan, beherakada asko nabarmendu zen. Azkeneko 30 urteetan dozena bat denda baino gehiago itxi dira.

zotxoak dauzka eta horrelakoetan saiatzen gara sektoreka arazoak konpontzen, bere indibidualtasun horretan, eta konturatu gabe askotan elkar lotuta daudela eta irtenbidea elkarlan horretatik etorriko dela".

Segurako Herri Eskolak ere kanpainari bere atxeki-

mendua adierazi dio, hauek ere bertakoa bertan erostearen onuraz ohartuak baitaude aspalditik. "Segurako Eskolan orain arte nagusiki kontsumitu diren produktuak bertakoak dira eta bertako dendetan erositakoak. Orain dela gutxi araudi berria iritsi zaigu, kanpoko janaria, kan-

poko merkatal guneetan erostea adierazten du. Guraso batzuri kezkarria iruditu zaigu, gure seme-alaben janariaren kalitatea gutxituko delako. Eskolak erabaki bat hartu du: nahiz eta garestiago atera, bertako produktuak kontsumitzea".

Felix Goiburua, dendarien ordezkariak, beraien sektoreak kanpaina honi oso harrera ona egin diola jakinarazi zuen. "Behar-beharrezkoa da gure funtzioa, antolatuz gero, baserritarren eta dendarien arteko lotura, herriarengana iristeko lotura ona izan liteke".

Baserritarrak ere gustura daude Segurako Udalaren ekimenarekin. "Orain dela 3-4 urte baserritarrak antolatuta eta Udalarekin hartuemanak izaten hasi ginen. Lehenengo pauso bezala, makineria mailan zegoen hutsunea betetzea izan zen. Bigarren fase bezala, bertan sortzen diren produktuak merkaturatzeko, (gertutik gertura, ahalik eta esku gutxienetatik pasatuz, lortzen dela esaten da) eta bide hori lantzea izango litzateke", esan zuen Joseba Alustizak.

Herritarren txanda da beraz orain. Kontzientziazio kanpaina egingo da Seguran. Jendaurreko aurkezpenean, gaur, urriak 18, 19:00etan, plazan egingo da. Triptikoak ere banatuko dira. Bertan, kanpoan erosketak egiteak dakarrena eta bertan egiteak sortzen duena nabarmentzen da. Aurrera begira ere asmo ugari dituzte. Esaterako, bertako produktuak bereiztuko dituen logotipo bat sortzea.

San Benito Ikastolak antolaturik 2003. urteko Kilometroak Lazkaon

Aurtengo Kilometroak, Gipuzkoako Ikastolen jaia pasatu berria da eta Urretxu-Zumarragako ikastolek, Lazkaoko San Benito Ikastolari pasatu diote lekukoa. Urte guztia aurretik, baina 2003ko urriak 5 gero eta gertuago, lanean hasiak dira dagoeneko lazkaotarrak. 27. edizioa izango du Kilometroak jaiak eta helburu ekonomikoaz gain, Lazkao eta Goierri ezagutzera ematea ere badira helburu.

Belen Maiza, Lazkaoko San Benito Ikastolako zuzendaria, 2003ko urriaren 5era begira jarriak baitaude dagoeneko. Urriaren 6an, Urretxu-Zumarragako ikastolek lekukoa pasatu zioten San Benito Ikastolari. Azterketa eguna jarrita dago beraz, 2003. urteko urriak 5. Orain urte osoa daukate aurretik, azterketa prestatzeko. Hori bai, aukera bakarreko azterketa, errekupezioren gabekoa.

Lanerako deia

Gauzak honela, herritarrak gonbidatu nahi dituzte, ikastolen eta euskararen aldeko festa antolatzera. "Agian, jendea motibatzea, ilusioa piztea... da zailena. Baina urte guztian zehar antolatu beharreko eguna da, milaka eta



Belen Maiza, San Benito ikastolako zuzendaria, Kilometroak jaiaren lekukoa eskuetan.

milaka lagun gerturatuko baitira egun horretan Lazkaora", zehaztu du Belen Maizak.

Urriaren amaierarako taldeak sortu eta osatu nahi dira. Herriko taberna, elkarte eta denda ezberdinetan izenak emateko txarteltxoak jarriak daude dagoeneko Lazkaon eta horietako txarteltxo bat bete edo Ikastolara joan besterik ez dago lana egin nahi dutenek.

Logotipoa eta leloa ere azarorako prest egongo dira. Kilometroak denda jartzeko lokala eta arropa biltegia prestatu... lanean jo eta ke ari dira dagoeneko.

Eraikin berria

Euskararen eta ikastolen proiektuaren aldarrikapen eguna izateaz gain, helburu ekonomiko zehatz bat izango du 2003. urteko Kilometroak jaiak: San Prudentzio eskola izan zena gaur egun San Be-

nito Ikastolak erabiltzen du eta Kilometroak jaian eskuratu-tako diruarekin, beste eraikin zati bat gehitzea nahi dute San Benitokoek, espazioz urri baitabil-tza eta teknologia berrietara egokitu beharra baitago. Hau da, San Prudentzio eskolaren U forma, O forman itxi nahi dute. Igogailua, teknologia berrien gelak, haurtzandegia... behar berrietara egokituko dute.

Lazkaorentzat ere erakusleho garrantzitsua izango da, urte guztian komunikabide ezberdinetan bere tartea izango baitu. "Erakusleho hori eskualdeko beste herri txikieta-rako ere baliagarria izango da. Herri txikiok horrelako festa erraldoia egiteko gai garela aldarrikatuko dugu. Gure ustez lazkaotarrek ez dute saltzen daukaten altxorra edo ondarea. Maizpide euskararen alde egiten ari dena ikaragarria da, beneditarrek daukaten ondare historikoa ikaragarria da... hori guztia ezagutzera eman eta balorizatu egin behar da. Ideiak baditugu buruan, ez ikastolaren proiektua bera bakarrik, baizik eta euskararen alde eta euskal kulturaren alde jende asko ari dela lanean. Bakoitzak bere esparruan, gizarteak, euskarak behar duen puzzle edo elkar-lan hori osatzen ari gara. Euskararen aldeko festa bat da Kilometroak eta euskararen alde ari direnak hor ego-tea garrantzitsua da, ez da ikastola bakarrik ari", gaine-

40 urteko Ikastola

Kilometroak jaiarekin batera, 40. urteurrena ospatuko du San Benito Ikastolak. Goierri eskualdean sortu zen lehenengo ikastola da Lazkaokoa.

835 ikasle ditu gaur egun San Benito Ikastolak. Lazkaokoez gain, Zegama, Zerain, Segura, Ormaiztegi, Gabiria, Ataun, Olaberria eta Beasaingo ikasleak ere badaude San Beniton. Momentu honetan, eskualdeko ikastetxerik handiena. 0 eta 18 urte bitarteko ikasleak ikastetxe berean hartzen dituen. Herri txiki batek horrelako zerbitzuak ematea garrantzitsua da Belen Maizarentzat.

Ekintza osagarri ugari eskaintzen ditu San Benito Ikastolak, herriari eta herritarrei zerbitzua eskainiz. Haurtzandegia, Ludoteka, Kanguro zerbitzua, Musika Eskola, Hizkuntza Eskola, Informatika, Kirola, Antzerkia... lazkaotar guztiei eskaintzen die San Benito Ikastolak.

ratu du.

Herri txikien aldarrikapena

Kilometroak jaiak 27. edizioa izango du 2003. urtean. Bere-zitasun bat izango du, ordea, 27. edizio honek: hain herri txikian ez da sekula Kilometroak jairik ospatu. "Deba izan liteke, baina 1986an antolatu zen eta orduko bolu-me-

18 urtez besteei bizia ematen

1984. urtean jarri zen abian Ataungo Odol Emaileen elkarteak, Jose Luis Gorostizuren ardura pean. Ordudanik, maiztasun gehiago edo gutxiagoz, odola eman duten ataundarren kopurua 130-140-ren inguruan dabil.

Azken 8 urteetako datuei begiratu, aurtengoaren kopuru zehatzik ez badugu ere, '98. urtea izan zela "oparoen" esan genezake, orduan 144 emale izan baitziren. Azken 3 urteetan, kopuru hori pixka bat jaitsi bada ere, mantendu egin dela esan genezake, 137-138 bolondres izan dira, Gabrielenera hurbildutakoak. Urtean hiru ateraldi izaten dira, otsailean, ekainean eta urrian, orokorrean otsailean egin izan dira ateraldi gehien. 2001ean, otsailean 52, ekainean 45 eta urrian 41 odol ateratze egin ziren. Aurtengo urtean, otsailean 49 eta ekainean 44 bolondres eman zuten odola.

Adinari dagokionean berriz, 18-22 urte bitarteko 24 emale daudela ikus genezake, 22-47 arteko taldean beste 24 eta 48-65 artekoan 33. Adinak gora egiten duen eran, kopuruak ere gora egiten du beraz. Sexuari dagokionean, gizonezkoak 42 izan ziren eta 39 emakumezkoak. Bitxikeria gisa esan, 18-22 urte arteko gizonezko emalerik ez dela izan, ezta 43-47 urte bitarteko emakumezkoen ere. Aldi horretan kopuru handiena O+ rh taldekoak izan ziren, 37. A+ taldekoak 16. eta O- taldeko 11.

Omenduak

25 donazio egin dituztenei, Gipuzkoako Odol Emaileen

elkarteak urtero antolatzen duen ekitaldi-bazkarian zilarrezko oroigarri bat ematen die. Iazko urrian omendu zituztenen artean ditugu Fatima Auzmendi, Patxi Erauskin, Xabi Eskisabel eta Jose Ramon Goikoetxea ataundarrak.

Bestalde, hil honetan ospatuko den ekitaldian honako herritarrek izango dira omen-duak: Fermin Jauregi, Jose M. Munduate, Maitane Aierdi eta Iñigo Goikoetxea.

Edonor izan daiteke odol emaille?

Odol emaille izan zaitezke 18 eta 65 urte artean badituzu. Hepatitisa, epilepsi atakeak, asma edota edonolako bihotzeko gaixotasunik izan ez baduzu. Bestalde, gripe zein katarroa pasa berria bazara 7 egun itxoin beharko dituzu odola eman aurretik. Hortzak edo haginak ateratakoan ere, hurrengo 7 eguneko epean ezin da eman odollik. Haurdun egon bazara, berriz, 6 hilabeteko epean itxoitea komeni da. Berdin, anestesia osoz ordubete baino gehiago iraun duen operazio bat izan baduzu. 6 hilabetez itxoin behar duzu, baita ere, odol sarteren bat izan baduzu. Bestalde, botika edo indizioak hartzen ari bazara, odol emate egunean bertara eramatea aholkatzen da eta, odola eman aurretik errekonozimendua egingo dizun medikuak esango dizu egun horretan odola emateko moduan zauden ala ez. Bestalde, kontuan izan, odola atera aurreko 3 orduetan ez dela komeni janari astunik edo koipetsurik jatea. Zerbait arina janda joatea gomendatzen da.

Aiatarrak protagonista: Aiora Urdangarin eta 'Marron' punta-puntan

Aiora Urdangarin Euskal Herriko Trikitilari Gazteen XI. txapelketako finalean izango da larunbat honetan, urriak 19, Zaldibarren. Iluntzeko 7etan hasiera emango zaion finalean, Aiora Urdangarin, panderoan eta bere bikotekidea den Maitane Aierza soinu-jolea txapela lortzen saiatuko dira. Nabarmendu beharrekoa da aurreko bi kanporaketetan puntuaziorik altuena lortu zuela bikoteak final horretara iristeko. Urte batzuetako etenaren ondoren abian jarri da txapelketa hau. Guztira 13 bikotek jardun dute lehian Agurain eta Azkoitian jokatu kanporaketetan. 8 bikote izango dira lehian datorren asteburuan.



'Marron'ek berriz, beste 3 euskaldunekin batean, joan den larunbatean, Himalayako Cho Oyu mendiaren gailurrera igo-tzea lotu zuen. Zortzimilakoa igotzea nahikoa ez eta, parapentean jaitsi zen ataundarra zazpi mila metro inguruan zegoen III. kanpamendutik, kanpamendu nagusira.

Oargin bertso afaria

Oargi Kultur elkarteak, datorren larunbaterako, urriak 19, bertso afaria antolatu du. Afalurretik poteoari ekingo diote iluntzeko 8,30etan. Afarria 9ak aldean hastekoa da.

Jubilatuentzako ibilaldi neurtua

Atsedentoki elkarteak ibilaldi neurtua antolatu du urriaren 22rako. Ibilaldiari 15:30ean ekingo zaio Atsedentokitik. Ondoren, Paskual iturri, Arrazela, Txuriturri, Lasarteko Gurutzea, Amundarain, Suki eta Atsedentokira buelta. Partehartzaileak bazkideak izan behar dute eta biko taldetan egingo dute bira. Ibilaldi ostean sari banaketa eta merienda izango dira elkarte-an. Guztientzat izango dira sariak. Izen emateko epea berriz, ostiral honetan, urriak 18, amaitzen da. Elkartearen bertan zein 943 180484 telefonora deituz eman daiteke izena.

Labur-labur

Joan den aleko kronikan hizpide izan genuen Nerea Barandiaran, Ataungo Musika Eskolako arduraduna. Oraingoan ere le-rootara ekarri beharrean izan gara, baina arrazoi saminagoe-gatik. Izan ere, joan den larunbatean, aita hil baitzitzaion istripuz. Ataungo Musika Eskolako ikasle zen Joxe Barandiaran Iztueta. Doluminak sendiari.

Non eta noiz?

Guztiz borondatezkoa baina hain baliotsua den ekimen honetan zuk ere partaide izan nahi baduzu, egunaren berri, auzo eta kaleetan elkarteak jartzen dituen oharren bidez izango duzu. Prentsan agertzen diren herriko kroniketan

ere informatuko zaituzte eta orriotatik ere, ahal dugun heinean, ahaleginduko gara horren berri ematen. Lekua, berriz, Gabrielenea eta ordua beti iluntzean, 7etatik 9etara. Hurrengo odol ateraldia: urriaren 22an, asteartea.

Agurtzane Bikuña



Gazte giro 2002

Haur eta gazteak protagonista izango dira asteburu honetan. Udalaren ekimenez eta Foru Aldundia eta tabernari batzuk antolatutako festa izango du asteburuan. Bideo bat, jo-koak eta diskofesta osagai nagusien artean.

Ostiralarekin emango zaio Gazte Giro 2002 **jaiei** hasiera. Iluntzeko 8etan Herri Antzokian Asier Mendizabal eta Iñaki Garmendia artista ordiziarrek egindako bideo bat eskainiko da. "Goierri Konpeti" du izenburutzat lan honek eta Goierriko gazte koa-drila baten ibilerak jaso dituzte. Asteburuetako planak, kotxeak, elkarrizketak eta abar Asier eta Iñakik modu berezi batean kamararekin jaso eta bildutako ordu beteko bideo saioa, esan bezala ostiralean Herri Antzokian.

Larunbatean, egunez, haur eta gazteentzat joko desberdinak izango dira. 12 urtetik beherakoek Enparantza Na-

gusian izango dute zita eta adin horretatik gorakoek, berriz, Joxemiel Barandiaran Plazan. Goizez 11etatik ordu batera eta arratsalde 4etatik 8etara aipatu lekuetan. Eta hau amaitu bezain laster, afari mokadu bat egin eta 11etatik aurrera "diskofesta" Beti Alai Pilotalekuan. Euskadi Gaztekoen eskutik egungo musika entzuteko parada izango da, dena kolore biziko argiz lagundurik. Aipatu, Udalaren baimenarekin, tabernak goizaldeko 5,30ak arte egongo direla irekita.

Gazta lehiaketa

Gazte festa hasi aurretik XV. Ordizia Txapeldun gazta lehiaketa jokatu da Garagartza Plazan. Ostiral arratsaldeko kalitatezko produktuen azokarekin bat egingo du aipatu lehiaketak eta arratsaldeko 6etan emango zaio hasiera.

Txindoki A.T.k emaitzak

Irailean Txindoki Atletismo taldekoek lortutako emaitza aipagarrienak honakoak izan dira: Zizurkilen jokaturako kros herrikoian Izaskun Zubeldia eta Irantzu Egiguren lehen bi postuetan sailkatu ziren, Egiako Porrontxo jaietako krosean ere Jose Javier Cuadrado garaipena eskuratu zuen. Josetxo Imaz Memorialean, berriz, "Karratu" 12. postua eskuratu zuen eta Jon Aranburu 17. izan zen. Proba berean Amaia Insausti bigarrena izan zen eta Izaskun Zubeldia 9garrena. Pistak estaliko probak ere hasi dira eta hemen ezin aipatu gabe utzi Adur Ugartemendiak luzera jauzian, Eñaut Gereñuk 100 metroan eta Eñaut Sarriegik luzera jauzian Gasteizen lortutako garaipenak. Jubenil mailako espainiar estatuko proban ere aurreko hiru gazteek lan txukuna burutu zuten.

Denak Tuterara

Nafarroa Oinez 2002 ospatuko da igande honetan Tuteran. Nafarroako Ikastolen aldeko festa honetara joateko Ordiziako Gazte Asanbladakoek autobusa antolatu dute eta bertan joan nahi dutenek txartelak eskuratu beharko dituzte 7 euroren trukean. Txartelak Leizea, Orlegi, Herrikoa eta Gaztetxean daude salgai. Autobusa igandean irtengo da Arboledatik goizeko 8etan.

Kontzertuak Sugaarren

"The Brontes" urriaren 18an, ostirala eta "Ohglaucon" musika taldea 25ean ikusgai eta entzungai izango direnak Elkanokaleko Sugaar tabernan. Bi kontzertuak ere iluntzeko 10,30etan izango dute hasiera. Berrikuntza lanak egin zituenetik areagotu egin dira taberna honek eskainitako saioak. Esan kontzertu hauek eskaintzeko areto berezia pres-tatu zuela eta ederki asko aprobetxatzen ari direla tabernako nagusiak.

Emakumeei buruzko filmak

Urriko ostiraletan protagonista dira Herri Antzokian emakumeei buruzko filmak. "Kandahar" eta "Sólo mfa" filmeen txanda izan da orain artean eta "Deliciosa Marta" eta "El secreto" ikusteko aukera 18an eta 25ean. Gaueko 10,15etatik aurrera izango dira ikusgai aipatu azken bi pelikulak.

Abesbatzen kontzertuak

Hego Afrikako Boulevard Harmonist taldea urriaren 27an, Finlandiako Philomela emakumeen abesbatza urriaren 30ean eta Txekiar Errepublikako Cantus haur abesbatza azaroaren leian ikusgai izango dira arratsaldeko 8etatik aurrera eliz-parrokian. Hemendik kanpoko eztarriak ere nola urratzen diren jakiteko aukera, beraz.

Aitor Calvillo

SOLOZABAL AUTO-ESKOLA

Promozioa: auto ordua 12 euro

Aita Urdaneta ORDIZIA
☎ 943 88 72 76


OTEÑE ERRETEGIA

Bazkari, afari eta edozein ospakizun
ingurune paregabean

Larraitz bidea

GAINTZA

☎ 943 88 98 48



Odol emaileek errekor berria

86 herritarrek eman zuten odola urriaren 2an, asteazkena, Odol Emaileen Elkartek egindako deia erantzunez. Herrian sekula odol gehien jaso den aldia izan da. Azken hilabeteetako joerari eutsiz geroz eta gazte gehiago joaten da. Oraingoan, 6 lagun joan dira lehendabiziko aldiz odola ematera.

Herriko Odol Emaileen Elkartek odola eman duten guztiei eskerrak eman dizkie, baita antolaketan laguntzen dutenei ere.

Ikastaroak

Udalak udazkenerako antolatutako ikastaro gehienak martxan daude. Informatika ikastaroan 9 herritar ari dira parte hartzen, hari lanetan 8 eta tailan 17. Aurten lehendabiziko aldiz makillaje ikastaroa egiten ari dira, horretan zazpi lagunek eman dute izena. Yoga ikastarorako ordutegia ere jarritako dago, astearteetan eta ostegunetan emango dute arratsaldeko 6,30etatik 8,30etara eskola txikian.

Dantza taldea ere martxan

Zirika Irratia

Bi hilabete eta erdiko atsedenaren ondoren, larunbat honetan, urriak 19, hasiko dira Zirika Irratiko saioak. Aurrekoetan bezala, larunbatero eguerdiko 1ean hasi eta 3ean bukatuko da saioa.

Ikasturte berrian, aurrekoetan bezala, herriko kontuei arreta berezia jarriko die Zirika Irratiak. Lehendabiziko saioan Idiazabalen euskararen erabilerari buruz egindako ikerketa izango dute hizpide. Etxegarate inauguratzen dutenerako saio berezia prestatzen ari dira.

Ohiko atalekin batera, aurten Idiazabalgo euskarari buruzkoa edota, herriko ikuspegitik nazioartean gertatzen direnei eskainitakoa entzun ahal izango dira. Zirika Irratia FM-ko 99.3an entzuten da.

jarri da oporren ondoren, 37 neska-mutikok eman dute izena. Maiatza bitartean ari tuko dira dantzak ikasten.

teria. Herritar talde bat ari da txartelak saltzen, herriko taberna eta dendetan ere erosi daiteke 5 euroren truke.

Xabier Urteaga

Gabonetako loteria

Idiazabalgo Kirol Elkartek salgai jarri du Gabonetako lo-

Itsasondo Ikastaroak, tailerrak... eta lasterketa!

Kurtso berriarekin batera martxan jarri zaizkigu urtero herrian izaten ditugun aktibitateak. Aurtengo honetan nobedaderik ere bada, hona hemen zerrenda:

● **Aerobik ikastaroa:** Astearte, ostegun eta ostiraletan, iluntzeko 8,30etatik 9,30ak bitartean biltzen dira herriko

gimnasioan aerobik egiteko. Kanpotar nahiz herritarrentzat, mutil zein neskentzat atek zabalik daude.

● **Antzerki tailerra:** 3 urtetik 14 urtera bitarteko haurrei zuzendua dago. Urritik hasita asteartero izango du jarraipena. Bi talde osatuko dira: bata, haur txikienekin, arratsal-

Mountain bike travesia

Larunbatean, hilak 19, herriko maldetan zehar antolatutako 28 kilometroko travesian parte hartu nahi duzuenok, zita arratsaldeko 3,30etan duzue. Izen ematea 3 eurokoa izango da.

deko 5etatik 6etara eta bestea berriz, 6etatik 7etara. Interestuek Udaletxean edo Herriko Eskolan eman beharko dute izena.

● **Dantza ikastaroa:** Euskal dantzak ikasteko ere bi talde osatu dira, bata 6 urte arteko haurrekin eta bestea, hortik gorakoekin. Astelehenero gimasioan izaten dute zita, talde batek 4,30etatik 5,30etara eta besteak 5,30etatik 6,30etara.

● **Liburutegi-ludoteka zerbitzua** ere martxan jarri da. Ohizko zerbitzuaz gain, liburu irakurketak, ipuin kontaketak, eta abar izango dira. Ordutegia honako hau da: astelehen, asteazken eta ostegunetan, 18:00etatik 19:00etara eta astearte eta ostiraletan, 18:30etik 19:30era.

Eduarne Ayuso - Leire Telleria

JOAKIN ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko llantak
filtroak, olioak, engrasea
frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran

943 18 72 57



Iñauti
HORTZ KLINIKA

ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 Zbki. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN 943 88 46 28



Ardiki Eguna, urriaren 27an

Iaz ospatu ez arren, urriaren 27 izango da Ardiki Eguna Zaldibian. Aurtengo Ardiki Egunean Zaldibiako Mondejuaren VIII. lehiaketa eta Aralarko Gaztaren VII. lehiaketa izango da. Zaldibiako Mondejuaren lehiaketako parte hartzea irekia izango da (mondeju zuria egiten dakien edonork har dezake parte). Izena urriaren 25 baino lehen eman beharko da Kultur Etxean, edo 943160338 telefono zenbakira deituta. Parte hartzaileek 5 kana aurkeztu beharko dituzte Resti pilotalekura goizeko 10etarako.

Bestalde, artzaintza lanbide duten Aralarko artzainek har dezakete parte gazta lehiaketan. Ardiki Egunean bertan aurkeztu beharko dituzte beren gaztak goizeko

11ak baino lehen. Bi lehiaketetako sariak ondorengoak izango dira: lehenengo saria 300 euro eta txapela, bigarrena 210 euro eta hirugarrena 120 euro.

Ondorengo hau izango da egitaraua:

10:30ean: Tobera, trikitixa, txistulariak, albokariak, dulzaineroak.

11:00etan: Artisautza erakusketa: gazta eta mondejuak egiten, artilea eta linua lantzen...

Goizean zehar: ganadu erakusketa izango da: ardi eta ahari taldeak, pottokak, behorrrak.

12:00etan: VIII. Mondeju eta VII. Gazta lehiaketen hasiera Resti pilotalekuan, Andoni Egaña eta Maialen Lu-

Ikastaroak aukeran

Kultur Etxeak hainbat ikastaro egiteko aukera eskaintzen du: margoketa, egur taila, eskulanak, argazkigintza, lore lehorrak, txalaparta, panderoa, bertsolaritza, altzarien zaharberritzea eta dekorazioa, zeramika, gozogintza, sukaldaritza, serigrafia... Margoketa ikastaroa asteazkenetan arratsaldeko 7etatik 9etara izango da eta egur tailakoa ostegunetan aurrekoaren ordu berean. Gainontzeko ikastaroen ordutegia, egutegia eta matrikula finkatu gabe daude taldeak osatzeko aukera dagoen ala ez jakin arte. Hemen aipatu diren ikastaroetatik kanpo beste ikastaroren bat interesatuz gero, aipatu eta deialdia egingo litzateke. Ikastaroetan parte hartu nahi izanez gero, izena Kultur Etxean eman urriaren 31 baino lehen eta ordutegia adierazi.

Baraibar-Zaldibia mendi irteera

Urteroko ohiturari jarraituz, Gailurrerantz kirol elkarteko mendi sailak Baraibartik Zaldibiara mendi ibilaldia antolatu du igande honetarako. Goizeko 7.30etan abiatuko da ibilaldia plazatik Baraibarrera. Oidura iristean babarrun jatea izango da galdutako indarrak berreskuratzeko. Gaur da izena emateko azken eguna. Lanean ari direnek 9 euro eta gainontzekoek 6 euro ordaindu beharko dute.

Argazki lehiaketako irabazleak

Zaldibiako Kultur Etxeak eta argazkigintza ikastaroan parte hartu zutenek antolatutako lehiaketako irabazleen izenak urriaren 3an jakin ziren: Jon Sukia "Borroka" lanarekin, Aloña Jauregi "Erreka Mari" argazki bildumarekin eta Iñaki Gurrutxaga "Jakinduria" lanarekin. Aipamen berezia egin zaio Pozgarri Arizkorretaren "Baserria" lanari. Urriaren 21etik 31ra Kultur Etxean izango den erakusketan ikusi ahalko dituzue.

Kronista berria

Azkenengo urteetan Iñaki Gurrutxaga eta Saroi Jauregi aritu dira herriko kronika idazten, baina aurrerantzean Edurne Soraluze arituko da zeregin horretan. Beraz, hemendik aurrera badakizue norengana jo.


Edurne Soraluze

janbio bertsolariekin batera. Aldi berean, mondeju pintxoak salgai jarriko dira.

14:30ean: bazkaria: mondejua, ardikia piperrekin, ardikia saltsan, gazta, ardo, kafea, pattarra eta purua.

Oharra: Bazkariko txartelak Zaldibiako tabernetan eta 943160338 telefonoan daude salgai. Prezioa: 14 euro.

Bazkalondorenetik gaueko 9ak arte: bertsolariak, trikitilariak...



ondoeta

☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51

Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

ALTZAIKUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

Urrian kultura ugari

Yartu Kultur Elkartek eta Udalak antolaturik, urriaren 2. hamabostaldian, kultur ekitaldi ugari izango da herrian. Urriaren 13an hasi ziren kultur ekitaldiak, Itsaso-Kizkitza-Ezkio-San Lorenzo-Itsaso ibilaldiarekin. Urriaren 15ean, Anjel Cuerdo abenturazalearen 'Korea eta Txina, amets baten bidean' ikus-entzunezkoa izan zen. Dena den, aurrera begira, beste hainbat eta hainbat ekitaldi dago prestatua. Jarraian duzue egitarau zehatza:

Urriak 19, larunbata:

Goizez: Igandeko erakusketarako perretxikoak Alegiako elkartera eramango dira, 12:00etatik 13:00etara.

16:00etan: Santa Lutzia

Kultur etxean umeen jaia: joko eta jolasak, txotxongiloak Enkarni Genuaren eskutik, eta txokolate jana.

Urriak 20, igandea:

12:00etatik 14:00etara: perretxiko erakusketa, Alegiako pilotalekuan. Mokadutxo egin eta tragoa hartzeko aukera izango da bertan. Erakusketan, era guztietako perretxikoak egongo dira ikusgai, txarrak eta onak, ezagunak eta ezezagunak, guztiak ere Aranzadi Elkarteko adituek sailkatuak.

Urriak 22, asteartea:

19:30ean: 'Osasuntsu bizitzeko aholkuak', Julian Bereziartua medikuaren eskutik, Santa Lutzia

Herri-flash

Proposamen batekin datoz Yartu Kultur elkartea eta Udalak: atera argazkiak gure herriko txoko ezkutuei. Karretea eta errebelatzea antolatzaileen kargu izango da. Karretea dohai-nik eskuratzeko, Santa Lutzia

Behin argazkiak aterata, karretea azaroaren 16a baino lehen entregatu behar da errebelatzeko. Ondoren, argazki erakusketa egingo da Gabonak arte.

Urriak 26, larunbata:

20:00etan: 'Ondo esan beharko', Ramon Agirre aktorearen antzezlan, Santa Lutzia

Gauean: Gazteen afaria.

Urriak 27, igandea: Erretiratuaren eguna:

12:00etan: Meza Alegiako elizan.

Ondoren: Salda Alegiako elkartean.

14:00etan: Bazkariak Labe-koa jatetxean.

Iñaki Mendiguren: Itzulpengintzako Euskadi Saria

Urriaren 10ean eman zuen berria Eusko Jaurlaritzak. Herriko Iñaki Mendiguren Bereziartuak jasoko du 2002. urteko Itzulpengintzako Euskadi Saria. Harry Potterren liburuen itzulpegiengintzagatik eman-goto diote.

Adinduen gimnasia

Iaz bezala, aurtan ere adinduentzatzako gimnasia izango da. Urriaren 2an hasi zen eta asteen bi egunetan ematen da, astelehen eta asteazkene-tan, 15:45etik 16:30era. Oraindik ere animatzen denak, izena eman dezake Udaletxean, bulego orduetan.

Etkez etxeko laguntza

Zeraingo Udaleko Gizarte Zerbitzuetatik, Etkez-etxeko laguntza zerbitzuko lanetarako lan poltsa egin nahi da. Lan poltsa horretan, Zerain-goak diren eta adinduekin lan egingo luketen pertsonak beharko lirateke.

Silo-bolen plastiko biltza

Udako etenaldiaren ondoren, silo-bolak egiteko erabiltzen den plastikoaren biltza zerbitzua hasia da. Biltza hau hilean behin egingo da, hileko 3. asteartean eta plastikoak bezperan, astelehenetan, atera beharko dira. Horretarako Udalak aurrez itxitura bat egin du biltza puntuetan, Zabalegi kanpan eta Barbari auzoan, Basozabal bide barrenean (Oporleku ondoan).

Birziklatzeko arazoak ematen dituztenez, sokak ez ateratzea eskatzen da.

Interesatuta daudenak, Udaletxean lan orduetan, ize-na eman dezakete.

Hitzaldia

Ongizarte sailak antolatuta, Julian Bereziartua sendagile-

ak, "Gorputzeko likidoak eta osasuna" gaiari buruz hitzaldia emango du. Kultur-etxean urriaren 24an arratsaldeko 7etan.

Mari Flor Mendizabal



Lur-azpiko garajeak

Urriaren 7an Udal Batzarrek erabaki zuen Txarape eta Alderdi-Ederren artean dagoen orubean 20 lur-azpiko garaje eraikitze eta honen gaineko lurzoruan plaza bat urbanizatzeko proiektua eta honen exekuzioa arautuko duten baldintzen pleguak onartzea. Hurrengo urratsa, obrak exekutzeko kontratazioarako deialdi publikoa egitea da. Honenbestez, aipatutako deialdi publikoa egin ondoren garajeak eraikiko eta salduko dituen enpresa kontratatuko du Udalak. Beraz, Udalak adjudikazioarekin batera, garajeak eraikiko diren lurzorua eskualdaketa egingo du enpresa adjudikazio hartzailearen alde.

Honela gauzak, eraiki behar diren garaje hauek erosteko interesa duenak, datorren abenduaren 5 arte Udaletxean izena eman dezake. Honetarako, 2001eko urriaren 7tik Zegaman erroldatua egotea eta adinez nagusia izatea, besterik ez da eskatzen. Edozein kasutan Udalak, ondorengo lehentasunak eta berezitasunak onartzea ebatzi du:

- Ori ibaiaren mendebaldean, udal pilotalekutik Txaraperaino (hau barne) eremuan erroldatuta daudenei erosteko lehentasuna ematea.



- Famili bakoitzetik lehentasuna lagun bakar bati ematea.

- Lehen puntuan aipatutako eremutik kanpoko herritar eta famili berdinetik aurkezten den bigarren edo beste herritarrekin erretserbako zerrenda bat osatuko da.

- 19,23 m²ko 18 garaje individual itxiak eta 2 garaje (bakoitzak 50 m² inguru) eraiki eta zozketatuko dira. Honenbestez herritar orok aukera izango du (aurrez aipatutako lehentasun eta berezitasunak ahaztu gabe) garaje multzo bakoitzerako eskaera bana egiteko; baina, zozketak biak erosteko aukera emango balio, garaje bati errenuntzia egin beharko lioke.

Garajeak ondorengo salmenta prezioa izango dute:

- Garaje individual itxiak: 16.377,58 euro (2.725.000 pta) + BEZ.

- Garaje bikoitz itxiak: 32.154,15 euro (5.350.000 pta) + BEZ.

Azkenik azpimarratu behar da, garajeen salmenta enpresa eraikitzaileak egingo



Olaran auzoan zerbitzu sozialak bideratzeko obren esleipenak

Udal Batzarrek uztailaren 22an erabaki zuen 3. adinerako pertsonen laguntza erabilerarako beheko lokala egokitzeko proiektu teknikoa eta baldintzen plegua onartzea. Honenbestez, obren kontratazioarako deialdi publikoa egin ondoren, eta epeetan aurkeztu diren bi eskaintzak aztertutik, Udal Batzarrek irailaren 25ean erabaki zuen, lanen exekuzioa "Pedro Iparraguirre S.L." enpresari 316.605,35 eurotan edo 52.678.697 pezetan (BEZ barne) esleitzea. Aipatutako lanak hilaren amaiera aldera hasiko dira eta lau hilabeteko exekuzio epea aurreikusita dago.

Jakina den bezala, behe oinean Etxe Soziala (edo Jubilatuen lokala), Eguneke Zentroa eta medikuaren kontsulta edo ambulatorioa kokatuko dira. Zentzu honetan azpimarratu behar, obren finantzaketarako lehendik lortuta dauden laguntzei Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak emandako 26.042 euro edo 4.333.024 pezetako dirulaguntza gehitu behar zaiola.

San Martin feria azaroaren 9an

San Martin feria hasiera batean, azaroaren 11n bertan egiten omen zen Zegaman, nekazaritza eta abeltzaintza oraindik gure herriko ekonomian zeresan handia zutenean alegia. Baina, sektore hau ahultzen joan den neurrian, feria azaroaren 11ko asteko zapatura pasatu zen. Azken urteetan ordea, egun hori Goierriko beste zenbait udaletan ere beren herriko feriak egiteko aukeratu zuten eta, egun berean Goierriin 3 feria ez suertatzeagatik, iaz Zegamako Udalak Beasain eta Ordiziako Udalekin 10 urteko iraupena izango duen hitzarmena sinatu zuen.

duela, beti ere Udalak onartutako baldintzekin. Zentzu honetan azaldu behar da, izena ematen dutenen arteko zozketa publikoa notario aurrean egingo dela Udaletxean, eta oraindik data eta ordua zehazturik gabe badago ere, au-

rez denei jakinaraziko zaie-la.

Edozein kasutan, dokumentazio teknikoa aztertu edo edozein ezbaie edo galdera argitzeko Udaletxean galdetu daiteke.

Eduarne Albizu

GESTORIA BIOK

ASEGUROAK

- ✱ Aholkularitza laborala eta fiskala
- ✱ Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

☎ 943 88 44 00 - 943 88 12 58

Goierri, 12

ORDIZIA

INAUSTI



KARROZERIA

N-1 errepidea, lurre auzoa

☎ 943 88 43 01

OLABERRIA



F.M. 89.2

EGUNEKO
24 ORDUAK
ZUREKIN

Patxi Ezkiaga poeta herriko seme kuttun

Urriaren 26an, eguerdiko 12etan, Patxi Ezkiaga Lasa poeta seme kuttun izendatuko du Udalak. Ezkiaga izango da 2002. urte kultur aste honetako protagonista nagusia. Seme kuttun izendatzeaz gain, herriko Kultur etxeari ere bere izena emango dio egun berean.

Patxi Ezkiaga seme kuttun izendatzeko arrazoiak bat baino gehiago dira Udaletxetik adierazi digutenez, baina nagusia honakoa da: euskal poesiaren alde eta euskararen alde eginiko lana. Horrekin batera, bere sorlekua, Legorreta joaten den leku guztietan zabaltzen saiatzen duela. "Herriak semetzat duen Patxi Ezkiagari modu honetan egin duen lana errekonozitu nahi dio, poesiak eta euskaraz idatzia islada koxkorra izaten badu ere gehienetan. Ekintza honen bidez, legorretarrok, eta Udalak, guztion izenean, askotan ahaztua daukagun Patxi Ezkiaga euskal poetari omenaldi xume bat egin nahi diogu, berarekiko dugun errespetua, begirunea, miresmena eta abar jakinaraziz", zehaztu digu Jexux Mari Arriazabalagak.



Liburu ugari idatzia da: azkena, 'Uso bat gehiago'. Sariak ere ez ditu gutxi jaso. 1988an eta 1998an esaterako, Kritikaren Sari Nazionala jaso zuen. Agustin Zubikarai saria 1998an eta 1999an; Txomin Agirre saria 1991n eta 1995ean; Irun Hiria 1999an... Euskadi Literatur Saria ere jaso zuen 1987an. 'Ispiluaren isladaketak' liburuarekin, lirika saria jaso zuen.

Bigarren seme kuttuna

Legorretak izendatutako bigarren seme kuttuna izango da Patxi Ezkiaga. Lehenengoa, Mikel Lasa Goikoetxea futbolaria izan zen, 1992ko Bartzelonako joko olinpikotik, futboleko, urrezko domina eskuratu baitzuen Espainiako futbol selekzioarekin.

Kultur astea

Urriak 23, asteazkena:

17:00etan: Arrate Leunda ipuin kontalaria liburutegian, 5-8 urteko haurrentzat.

18:30ean: Buruhandiak.

19:00etan: Hitzaldia: 'Autoestimua eta motibazioa. Hel-duaroari baikortasunez nola aurre egin'. Herri Zineman. Hizlaria: Amagoi Muruamendaraz.

Urriak 24, osteguna:

17:00etan: Hitzaldia Ugara Herri ikastetxean: 'Familia barruan balioak nola eraikitzen diren'. Hizlaria: Alex Muela.

17:00etan: Tirolinak, puenting eta eskalada herrikoia Udal pilotalekuan.

19:00etan: Musika emanaldia eta txisteak Antton Imaz eta Jose Inazio Iturrioren eskutik, Herri Zineman.

Urriak 25, osteguna:

16:30ean: Pote, igel eta toka txapelketak jubilatuentzat.

19:00etan: Buruhandiak.

23:00etan: Legorretako VIII. Mus txapelketa Bilkoin K.K.E.-n.

Urriak 26, larunbata:

12:00etan: Patxi Ezkiaga legorretar poeta herriko seme kuttun izendatzea eta Kultur etxeari bere izena emate ekitaldia. Harrera agintariei, Agur Jaunak, Ohorezko aureskua, Ohorezko arkua, seme kuttun izendatze eta Kultur etxeari izena emate ekitaldia, agintarien hitzak, agintari eta gonbidatuak Kultur etxera joatea dantzari eta txistulariz lagunduak, plaka zabaltzea, Santa Ana abesbatzaren emanaldia, hamaiketakoa... izango dira.

18:00etan: Herri Kirol tailerra Udal pilotalekuan. Txingak, soka tira, zaku lasterketa, harri jasotzea, eta abar.

19:30ean: Ozenki Otxotearen musika emanaldia herriko kaleetan zehar.

Urriak 23, asteazkena:

09:00etan: Burnikurutzetarako erromeria trikitilariak lagundua. Baserritarrez jantzita joatea eskatzen da. Iristean hamaiketakoa eskainiko da.

12:45ean: Joxe Agirre eta Imanol Lazkano bertsolarien emanaldia Udaletxeko balkoitik.

13:00etan: Buruhandiak eta dantzariak.

14:00etan: Joxe Agirre eta Imanol Lazkano bertsolarien emanaldia Udaletxeko balkoitik.

Literatur emaitza oparoa

Literaturako ikasketak Ingalaterrako Oxford eta Cambridgeko unibertsitateetan egin zituen. Ondoren, Deustuko unibertsitatean, historia moderno eta garaikidean lizentziatu zen. Irakaskuntzan, batez ere Donostian eta Bilbon aritu da. 1984an hasi zen literaturan murgiltzen.

Udal ikastaroak hasita

● **Egur tailaketa:** 11 lagunekoko taldea. Astearteetan (18:00-20:30), postetxeko gela batean. 30 ordu. Irakaslea, Jabier Arrieta.

● **Eskulanak:** 9 lagunekoko taldea. Astelehenetan (14:30-17:00), Kultur etxean. 30 ordu. Irakaslea, Iñaki Urreaga.

● **Euskara:** 5 lagunekoko taldea. Ostegunetan (10:00-12:00) eta ostiraletan (18:00-20:00), Txanbolinpen. Irakaslea, Marina Paglialunga. Urte osoan.

● **Aerobic:** 40 lagunekoko taldea. 3 talde, goizean, eguerdian eta iluntzean, Baratze pilotalekuan. Irakaslea, Sabina Zivec. Urte osoan.

Futbola

Asteburuko emaitzak:
Errejonialak: Segura 3-0 Ondarroa. **Jubenilak:** Segura 9-1 Urnieta. **Kadeteak:** Tolosa 1-1 Aizkorri. **Infantilak:** Santo Tomas Lizeoa 2-3 Aizkorri.

Asteburuan etxean: Jubenilak: Segura - Euskalduna, zapatuan, 15:45ean. **Errejonialak:** Segura-Soraluze, zapatuan, 17:45ean.

Labur-labur

● **Rafael Berasategi aske.** ETako kolaboratzaile izatea leporatu ondoren, inongo kargurik gabe askatu zuten urriaren 3an.

● **Ur bideraketa.** Baratze pilotalekura goialdeko eraikuntzetatik zetorren ur zikina, tubo handiago batera elkartuta, frontoi ondoko errepidea zeharkatuz, kolektore orokorrera bideratu da.

● **Udal liburutegia,** astelehenetik ostegunera, 17:00etatik 19:00etara egoten da zabalik. Arduraduna: Elisa Ferreira.

● **Europako sega txapelketa.** Segurako lur-zelai hobeak ikusirik, nonbait, Obisponetik Ondarre aldera doan gunean burutuko da txapelketa.

● **Koruaren entsaioak.** Santa Zeziliarako kantu berriak ari dira entsaiatzen, ostegunetan, 20:00etan, Kultur etxean.

● **Nafarroa Oinez.** Elorri Kultur Elkartek, urriaren 20an Tuterarako antolatu duen autobusa 8:30ean aterako da plazatik. Izen ematea (6 euro) Elorripen.

Baserria bizirik, dendak bizirik, herria bizirik

Kanpainaren aurkezpena, gaur, 19:00etan, plazan

Baserrien gainbeherak eta dendetako salmenta jaitsierak herrian duten eragin negatiboa begibistakoa da. Aspalditxotik datorren kezka honi aurre egiteko, udaleko garapen batzordearen, baserriarren elkartearen, dendariaren eta herri eskolaren iniziatibaz, 'Baserria bizirik, dendak bizirik, herria bizirik' kanpaina jarri dute martxan. Egitasmo honen berri urriaren 14ko prentsaurrean eman zen udaletxean. Burutu diren eta burutuko diren ekimenak, udal ordezkariak, Goimenekoek, baserriarrek, dendariak, herri eskolakoek, Asier Galdos eta Jakoba Errekondo nekazal ingeniariak azaldu zituzten. Guztiak argazkian.



Egoeraren azterketatik ekintzetara

Baserri nahiz dendari sektoreen egoeraren azterketa sakona egingo da dagoeneko. Errealitatea ezagututa, Goimeni proiektuak aurkeztuko zaizkio, diru laguntzak lortu eta herriko eragile zuzenekin proiektu horiek burutu ahal

izateko. Bertan eta bertakoa erosteak herriarentzat dituen onuraz herritarrek informatu eta kontzientziazteko, besteak beste, triptiko bat banatuko da etxek etxe.

Prentsaurrekoaren informazio gehiago 12. orrian

Joseba Telleria



Mendi taldekoak aurtengo inauterietan Leaburuko Erroizpera egindako irteeran. Arg.: Txetxu Ormazabal.

50 ikasle kirol eskolarrean

3. mailatik 6. mailara arteko neska eta mutil alebin eta benjaminen urriaren 19an hasiko dute kirol denboraldia. Xabier Intxaustiren ardura pean, zenbait guraso eta gazteren laguntzarekin, zapatu-jaietan atletismoan, krosean, areto futbolekin, saskibaloian, pilotan, tenisean, mahai tenisean, mendian, igeriketan, trialsinean, herri kiroletan eta xakean arituko dira 8tik 12 urte arteko haurrak.

Areto futbola: Urriaren 19an, goizeko 9:30etan hasita lau partidua Baratze pilotaleku ondoan.

Mendi irteera: Urriaren 27an, finalistaren eguna Azpeitin. Gipuzkoa guztikoak elkartuko dira. Antolatzaileen esanetan mendi irteeretan edozein herritarrek ere parte har dezake.



IX. Osinalde bola txapelketa

Herritar bat txapeldun

Urriaren 5ean jokatu zen bolako Osinalde sarian herritar bat izan zen garaile, Noa-reko Migel Mujika Pittirrik lortu zuen txapela bukaeraino lehia estuan aritu ondoren. Sari hau lortzen duen bigarren bolari gabiriarra da Pittirri, Segundo Aranburu izan zen lehenengoa orain bi urte.

Gipuzkoa osoko 52 bolarik parte hartu zuten denboraldiko azkenetakoa den Osinalde sarian, eta garesti saldu ziren lehenengo postuak; sei-

na bola bota ondoren lau laguneren artean erabaki zen txapelketa, 36 birla jota denak. Pittirriren atzetik Antonio Agirre segurarra izan zen bigarren, Antonio Alustiza zeraindarra hirugarren, Pedro Lazkano donostiarra laugarren eta Martin Retegi hurrena.

Sailkapen nagusiaz gain, herritarrentzat jartzen den sari berezia Joxe Maizek eskuratu zuen, Felix anaiarekin desenpatea egin ondoren. He-

Jubilatuaren egun handia

Lehenengo igandean zuten herriko jubilatuek eurentzat antolatutako festarako zita, eta ederki gozatu zuten kaskora hurbildu zirenek. Eguerdiko ekitaldien ondoren mahaiaren inguruan jarrita eman zieten



egunari ukitu berezia, eta umore ederrean ibili ere bai bazkal ondoko bertso eta soinu artean. Hirurogeita bost lagun elkartu ziren Osinalde elkartearen.

Txokoko Pilar Txintxurretak eta Itzaitegiko Patxi Goiak jaso zuten aurtengo omena, udalaren izenean oroigarri bana hartuz. Herriko zaharrena ere bazkaltzen zen, Zantagoitiko Antonio Olariaga, 96 urterekin eta osasun oneko.

mezortzi urtera bitarteko gazteetan, berriz, Josu Lazkano gailendu zen 34 punturekin, Andoni Berasategi eta Jon Maizen aurretik.

Gasbide berriaren proiektua

Udaletik jakinarazi denez gaur egungo gasbidea handitzeko asmoa dute instituzioek eta gas enpresek, Gabiria erdiz erdi zeharkatzen duen Bergara-Irun bidea tartean. Oraingo hodian alboan kapazitate handiagoko beste lerro bat sartuko da lurpean, dagoen ibilbidearen paralelo eta 5 metroko distantziara. Proiektuak luze joko du oraindik, lanak hasteko epea zehaztu gabe baitago, baina aurrene-

ko aurkezpen honekin alegazioak eta aldaketak egiteko prozesua jarri da martxan lurjabe, afektatu eta jakinahia duten guztientzat. Proiektua xehetasun osoz udaletxean dago ikusgai.

Gripearen aurkako txertoa

Oraindik txertoa hartu ez duten 65 urtetik gorako pertsonen edo gaixotasun kronikoren bat dutenek hil honen 31ra arte daukate horretarako aukera. Santa Lutziko mediku-etxean egunero 11etatik 12etara, eta herriko anbulatorioan asteazkenetan 12etatik ordu batera.

Aimar Maiz

Ardi jatea Ostatun

Urriaren 25ean egingo da herriko Ostatuan urteroko ardi jatea. Afaltzera joan nahi duenak bertara joan edo 943801166 telefono zenbakira deitu behar du.

Santu Guztietako elizkizunak

Azaroaren 1a da gure artetik joandako senideak gogortzeko eguna. Egun horietako

elizkizunak honako hauek dira: 12:30ean izango da meza parrokiaren eta arratsaldean, 16:00etan, kanposantuan izango da ospakizuna.

Herritarrek Txillida lekun

Urriaren 5ean izan zen herri-

ko jubilatua eta ez jubilatuz osatutako koadrila Hernaniko Txillida lekuan. Ondoren Orion bazkaldu ondoren, Zaurutzen amaitu zuten egunpasa. Egun bikaina pasa zuten guztiek.

Iñaki Ugalde

Udazken kulturala abian

Datorren astean, urriaren 26an emango zaio hasiera aurtengo Udazken Kulturalari. Azaroaren 17a bitarte egitarau zabala prestatu da. Ondorengo ekitaldiak izango dira lehen astean.


Boluntario eguna. Urriaren 26an Beasaingo I. Boluntario eguna ospatuko da Gizarte Ongizate saila eta herriko elkarteak antolatuta Loinazko San Martin plazan goizeko 11etan.

Bertso saioa. Urriaren 31n 22:30etan bertso saioa izango da Usurbe Antzokian. Aitor Sarriegi, Iñaki Apalategi, Iñaki Gurrutxaga, Andoni Egaña, Sebastian Lizaso eta Maialen Lujanbio. Gai jar-tzen Ekaitz Goikoetxea. Sarrera 3 Euro (aldez aurretik takilan). Bertsoaren Beasaingo lagunak antolatu du saioa.

Lehiaketak

● **Jendaurreko XI. margo sariketa:** Urriak 27. Antolatzailerak: Arrano Kultur Elkar-tea. Deialdia erabat irekia da parte hartu nahi duen edonorentzat. Partehartzaileak goizeko 9etatik 11etara zigilatu beharko dituzte lanerako erabiliko dituzten euskarriak Usurbe Antzokiko Erakusketan Aretoan. Lanak 13:30etan aurkeztu beharko dira. Sari banaketa 18:30ean egingo da Usurbe Antzokian.

● **Argazkigintzako XI. Rallya.** Urriak 27. Antolatzailerak: Argizpi Argazkizale Elkar-tea. Lanbidez argazkilaria ez diren zaletu guztiek har dezakete parte. Izenemateak, egun berean egin beharko dira goizeko 9etan eta arratsaldeko 2etan, Urbieta Arte Plastikoetarako Zentroan. Gaia, argazkilariek egun



Manuel Barandiaran iazko irabazlea

berean jakingo dute zozketa bidez. Lanak 19:00etarako aurkeztu beharko dira.

Musika

● **Alemaniko Kammerchor Saarbrücken** Abesbatzaren kontzertua. Urriaren 31n Andre Mari Zeruratuaren Parrokian Loinatz abesbatzak antolatuta.

● **Debako Banda.** Azaroak 1. Debako Bandaren kalejira izango da 12:00etan eta 13:00etan berriz kontzertua emango du Loinazko San Martin Plazan.

Dantza

● **Dantza jaialdia.** Azaroaren 2an Aurtzaka dantza-taldeak antolatutako dantza-jaialdia izango da Loinazko San Martin plazan 19:00etan.

● **Dantzaki dantza-eskola.** Bertako irakasle eta ikasleek dantza-erakustaldia eskainiko dute azaroaren 3an 19:00etan Loinazko San Martin plazan.

Haurrentzako ekitaldia

Azaroaren 3an haurrentzako parkea muntatuko dute Zaldizurreta plazan. Goizez 11etatik 14etara eta arratsaldeaz, 16etatik 18etara.

Nekane Altuna

Odolkiaren festa azaroaren 2an

XVIII. Odolki lehiaketa ospatuko da egun honetan. Jatetxe-etako pertsona ezagunez eta Beasaingo odolki kofradiaren bazkideek osatuko dute epaimahaia. Goierri, Tolosalde eta Urola Garaiko harakin guztiek izango dute parte hartzeko aukera. Irabazleak, ohitura moduan, otsailaren 5ean, Loinazko San Martin egunean egiten den Kofradiaren urteroko bazkarirako odolkiak prestatu beharko ditu. Gogoratu, Ordiziako Manuel Barandiaran izan zela iaz "Odolkien errege".

Odolkiak lehiaketara aurkezteaz gain, herritarrek odolkiak dastatzeko aukera ere izango dute. Antolatzaileek odolki pintoak eta edaria saltzen jarriko baitituzte. Egurdiko 12etan emango zaio hasiera.

Bertako produktuen peria

Bertako produktuen peria egingo da egun berean Loinazko San Martin plazan. Bertako produktuekin egingo den azoka berezi honetan, Euskal Herriko hainbat produktu erosi ahal izango dira, goizeko 10etatik aurrera egongo diren postu ezberdinetan.

Nortasun agirira berritzeko datak.

Nortasun agiria berritu nahi dutenek Beasainen egiteko aukera izango dute honoko data hauetan Udal bulegoetan; azaroaren 14an eta 28an.

Aurtzaka dantzataldea

Aurtzaka dantzataldeak deialdi orokorra egiten die 13 urtetik gorako mutilei dantzari izateko. Euskal dantzak gustuko izanez gero eta taldeko partaide izan nahi dutenek hau izan dezakete beren aukera. Beasaingo Kiroldegira azaldu beharko zarete ostiraletan iluntzeko 8etatik aurrera. Hantxe izango dira Aurtzaka taldekoak ensaiatzeko eta dantzak erakusteko prest.

XIII. Beasain Idazlehiaketa

Beasaingo Udaleko Euskara-batzordeak, Gipuzkoa-Donostia Kutxak lagunduta, ikasleek euskaraz idazteko trebetasuna sustatzeko, Beasain idazlehiaketa sortu zuen 1990ean. Aurtengo hau beraz, XIII. lehiaketa da.

Partehartzaileak 5 mailatan banatuko dira, 1985 eta 1994 urte artean jaiotakoen artean. Hitz lauuko idazlanak edo olerkiak izan daitezke baina ezinbestekoa da lanak originalak izatea eta beste lehiaketaren batera aurkeztua ez izatea.

Informazio gehiago ikastetxe bertan edo Euskara Zerbitzuan emango dute. Idazlanak 2002ko abenduaren 10erako aurkeztu behar dira eta epaimahaia 2003ko otsailaren lehen egunetan jakinaraziko ditu saritutakoen izenak.



Gazte festak

Urriaren 26an ospatuko da 4. Gazte festa. Egun osoko egitaraua prestatu dute herriko gazteek. Hona hemen emaitza:

10:30ean: Goiz eresia.

11:00etan: Pintxo lehiaketa plazan.

11:30ean: Mus txapelketa. Izen ematea egunean bertan, 6 euroren truke.

12:30ean: Triki-bertso pote-

oa, plazatik abiatuta.

15:00etan: Gazte bazkaria pilotalekuan. Ondoren bertsolariak, herriko trikitilari gazteak eta euskal kantuen saioa.

18:00etan: Jolasa.

19:30ean: Txarangaren doinu alaiak herriko kaleetan.

20:30ean: Kontzertuak.

24:00etan: Drindots taldearekin dantzaldia goizaldera arte.

Bazkarirako txartelak tabernetan daude salgai. Pintxo lehiaketan parte hartzeko izena emateko zerrendak ere tabernetan daude.



Gaztaina jatea

Azaroaren leian, ohiko gaztaina jatea izango da, arratsalde partean. Nahikoa gaztaina erre jateko aukera izan-

go da plazan.

Egun berean, San Migel egunean, irailaren 29an, joka-

tu zen argazki rallyko irabaz-leei sariak banatuko zaizkie, Udaletxean.

Nohiz arte aurpegia
munduari itxita
begirada etengabe lo nahian

etorri,
hartu nire eskua

goazen argirantz
zeure burua ikusi
beste begi batzuetan
eta ikustean izan, ukitu, aurkitu
behar duzuna



Karmele Iturbe Eguren
Psikoterapeuta

Buenos Aireseko San Isidro Ospitalean Terapeuta izandakoa

Kontsulta: Homeopatia Zentrua · Labeaga 66, Tarteko Solairua 20700 Urretxu · Tel.: 943 72 55 66 karmeleiturbe@hotmail.com

Odilo Rivela beasaindarra Europako Wu Shu txapelketarako bidean

Espainiako Wu Shu txapelkun da Odilo Rivela. Ourensen jokatu zen txapelketatik bi lazkaotar ere dominekin etorri ziren Montxo Quina, urrea, eta Josu Ballesteros, zilarrak. Urriaren 21ean Portugala doaz Montxo eta Odilo Europako txapelketetan parte hartzera. Lehen ere lazkaotarraren berri eman izan dugunez, oraingoan beasaindarrarekin hitz egin dugu.

Wu Shu lehiaketetan bi modalitate ezberdin izaten dira: borrokak eta formak. Odilok borroketan parte hartzen du 65-70 kiloan tartean. Espainiako txapelketetan Euskadi, Galizia eta Madril ibiltzen dira ondoen. Eta hauen artean hoberenak Europako eta Munduko txapelketara joaten dira; urte bakoitzean bat egiten da. Europar indartsuenak Errusia eta ekialdeko herrialdeak dira. Mundu mailan, berriz, Txina eta Errusia dira nagusi, Txina pisu arinetan eta Errusia astunetan.

Bere lehenengo Europako txapelketara ikasteko asmoarekin badoa ere ahalegina egingo du paper txukuna egiteko. "Espainiako txapelketara noanean, badakit gutxi gora behera nire tokia non dagoen, baina, Europakoetan



Arg.: Barrasa.

Zer da Wu Shua?

Berez Kung Fua da. Kung Fu arte martziala da eta Wu Shu arte martzial hori kirol bihurtu denean hartu duen izena. Txinatik dator eta han oso kirol garrantzitsua da, kirol nazionala. Azken finean arte martzialak beraien kulturaren ezaugarri garrantzitsu dira. Kirol osoa da, indarra, flexibilitatea eta erresistentzia landu beharra baitaude. Teknika lantzea oso garrantzitsua da, estrategia eta buruarekin jokatzeko, indartsuena ez baita beti hoberena izaten.

Beasaindik zabaldu den kirola

Lorea gimnasioan Jose Mari Jimenez beasaindarra hasi zen Kung Fua irakasten. Ondoren bere ikasle izan zirenak irakasle bihurtu eta gimnasioak zabaldu zituzten Tolosa, Lasarte eta Eibarren.

ez dakit zer mailatan egongo naizen. Hala ere, dena eman eta ahal dudana aurreena gertatzera joango naiz", dio beasaindarrak.

Denboraldian zehar, txapelketa gutxi izaten dituztenez, Odilo Ful Contacten aritzen da tarteka. "Ez da Wu Shuaren berdina baina lehiaketa izateak entrenatzen ja-

rraitzeko motibazioa ematen du, batez ere uda garaian lehiaketarik izaten ez dugulako. Udaberri eta udazken aldean erakustaldiak ere egiten ditugu, herriko jaietan eta hainbat ekitaldietan".

Kirolgi proiektuaren barruan Wu Shu egiten duten 3 daude eta hirurak goierritarak: Montxo Quina, Josu Ba-

lleteros eta Odilo Rivela. "Ez gara profesionalak, ezta guxtiago ere, baina, gastuak poltsikotik ordaindu beharrik ez izateko laguntza da. Motibazio aldetik ere lagungarria da".

Sakrifizio handia

8 urterekin hasi zen Odilo kirol honetan. Zerbait ezberdina egin nahi zuen eta Kung Fu egiten zuen jendea ezagutu zuenez Lorea gimnasioan sartu zen eta bertan jarraitzen du gaur egun ere. "Asko hasten dira Kung Fua egiten, baina, zaila da jarraitu eta lehiaketetan parte hartzera iristea. Errendimenduko kirol guztietan bezala asko entrenatu behar da, sakrifizio asko egin behar da eta talde txiki bat gara horretan aritzen garenak. Gero, badira denbora pasa bezala kirol hau egiten dutenak ere".

Wu Shua ez da batere kirol ezaguna eta horretan dabiltza: 2008. urteko Olinpiar Jokoak Pekinen direnez, kirol olinpikoa izango da eta horrekin jendearengana iristea espero dute. "Kirol hau maitatzen dugunontzat garrantzitsua da 2008an izango duen zabalkundea izatea", dio. Bertara iristea du helburu Odilok, "orain 23 urte ditut eta olinpiadara 28-29 urterekin iritsiko nintzateke, teorikoki kirol bizitzako gailurrean. Bertara iritsita erretiratzeko moduan nengokeen".



AUSO EGI

Urdaneta, 41
©-Faxa: 943 88 95 76
ORDIZIA

- ✖ Tximini eta egurrezko ekonomikak
- ✖ Berogailuak
- ✖ Iturgintza
- ✖ Zeramika erakusketa
- ✖ Bainuko altzariak
- ✖ Erreforma osoak



ZINEA

goieniz

GOIENIZ:

Urriak 24: 'No man's land', 21:00etan, Usurbe antzokian.

BEASAIN:

Urriak 19: 'Etxaldeko erregea', 17:00etan.

Urriak 26: 'Stuart Little 2', 17:00etan.

Azaroak 2: 'Las supernenas', 17:00etan.

LEGORRETA:

Urriak 24: 'Chocolat', 20:30ean, Herri Zineman.

Urriak 31: 'Inteligencia artificial', 20:30ean, Herri Zineman.

ORDIZIA

'Deliciosa Marta'
Ostirala, 18: 22:15.

'El mismo amor la misma lluvia'
Larunbata, 19: 22:15.
Igandea, 20: 19:30 - 22:15.
Astelehena, 21: 19:30

'OT, la película'
Larunbata, 19: 19:30.
Igandea, 20: 16:45.

'El secreto'
Ostirala, 25: 22:15.



'No man's land'

Danis Tanovic

(Fra, Ita, BH, Esl, 2001)

Balkanetako gerraren erdian, lubaki galdu batean harrapatutako bi soldadu daude, bata bosniarra, beste serbiarra, biak "inorena ez den eremuan". Elkarren etsai dira baina lagun berbera dute. UNOk soldadu "lagunak" ordea, arrotzak dira bertan eta frantsesez, alemanez eta ingelesez bakarrik mintzatzen dira. Kokapen nahasi honetatik abiatuta egoera barregarriak bezain absurduak sortuko dira, gerraren samina eta zentzugabekeria alde guztietara zabalduz, antzeppen humanitarioak bare.

Danis Tanovic zuzendari bosniarrak 300 ordu baino gehiago filmatu ditu bosniar ejerezitoaren artxiboetarako eta dokumental arloko zenbait sari ere jaso ditu. Beraz, gerra eremuan duen esperientziaz eta jakintzaz ezin hobeto baliatuz film bikaina eta zorrotza osatu du, elkarriketaz zoragarrietan oinarritutako parodia gazi-gozoa, gerra kronika ezohikoa, inondik ere.

bertsoak

BEASAIN:

Urriak 31, Bertso saioa, Usurbe Antzokian, 22:30ean. Aitor Sarriegi, Iñaki Apalategi, Iñaki Gurrutxaga, Andoni Egaña, Sebastian Lizaso eta Maialen Lujanbio. Gai jartzailea: Ekaitz Goikoetxea. Sarrera: 3 euro.

LEGORRETA:

Urriak 27, Joxe Agirre eta Imanol Lazkano, Udaletxeko balkoitik, 12:45ean eta 14:00etan.

musika

BEASAIN:

Urriak 27, Gasteizko Mendizale Elkartaren abesbatzaren kontzertua, Garingo San Sebastian elizan.

Urriak 31, Alemaniako Kammer Chor abesbatza, Andra Mari Zeruratuaren parrokiari, 20:00etan.

Azaroak 1, Debako bandaren kontzertua, Loinazko San Martin plazan, 13:00etan.

LEGORRETA:

Urriak 26, Ozenki Otxotea, herriko kaleetan zehar, 19:30ean.

ORDIZIA:

Urriak 19, Diskofesta Euskadi Irratiaren eskutik, Beti Alai pilotalekuan, 23:00etan.

Urriak 27, Hego Afrikako Boulevard Harmonist abesbatza, parrokiari, 20:00etan.

Urriak 30, Finlandiako Philomela emakumezkoen abesbatza, parrokiari, 20:00etan.

Azaroak 1, Txekiako Cantus haur abesbatza, parrokiari, 20:00etan.

antzerkia

EZKIO-ITSASO:

Urriak 26, Ramon Agirre-ren 'Ondo esan beharko', 20:00etan, Santa Lutziako Kultur etxean.

dantzak

BEASAIN:

Azaroak 2, Aurtzaka dantza taldearen dantza jaialdia, Loinazko San Martin plazan, 19:00etan.

Azaroak 3, Dantzaki dantza eskolako irakasleen eta ikasleen dantza erakustaldia, Loinazko San Martin plazan, 19:00etan.

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

San Inazio, 14 ☎ 943 889 390 BEASAIN
Garagartza pl., 1 ☎ 943 805 327 ORDIZIA

Alpe

SUKALDE ALTZARIAK

sukalderik goxoenak

Mariarats 10 Beasain
Tfno/Fax 943 88 86 84

ikus-entzunezkoa

ORDIZIA:

Urriak 18, Iñaki Garmendia eta Asier Mendizabalen 'Goierri Konpeti' bideo emanaldia, Herri Antzokian, 20:00etan.

hitzaldiak

EZKIO-ITSASO:

Urriak 22, 'Osasuntsu bizitzeko aholkuak', Julian Bereziartua medikuaren eskutik, 19:30ean, Santa Lutzia Kultur etxean.

LEGORRETA:

Urriak 23, 'Autoestimua eta motibazioa. Helduaroari baikortasunez nola aurre egin', Amagoia Muruamendi medikuaren eskutik, 19:00etan, Herri Zinemaren.

Urriak 24, 'Familia barruan balioak nola eraikitzen diren', Alex Muel Aparicio-ren eskutik, 19:00etan, Herri Zinemaren.

ZERAIN:

Urriak 24, Julian Bereziartuaren eskutik 'Gorputzeko likidoak eta osasuna', 19:00etan, Kultur etxean.

erakusketak

BEASAIN:

Urriaren 27tik azaroaren 17ra arte, XI. Aire zabaleko pintura lehiaketako lanen erakusketa, Usurbe antzokian.

Azaroaren 18ra arte, V. Jesusen ikasleen erakusketa, Aterpe tabernan.

EZKIO-ITSASO:

Urriak 20, Perretxiko erakusketa, Alegiako pilotalekuan, 12:00etatik 14:00etara.

ORDIZIA:

Urriaren 25era, Mamen Arruti artistaren pintura erakusketa, Barrenan.

ZEGAMA:

Astebukaeretan, Ehungintza tailerraren erakusketa. Orduetgia: 11:00-14:00 eta 16:00-19:00.

Ordiziako ileapaintzaileen erakustaldia

Urriaren 26an, arratsaldeko 7etan, Garagartza plazan, 2002ko ileapaintzaileen desfilea egingo da Ordizian Elkartek antolatutako.

Ez da lehiaketarik izango, erakustaldia bakarrik. 54 modeloren ileak apainduko dituzte jarraian aipatutako Ordiziako 9 ileapaintzaileek: Iñaki, Marisol, Gurutze, Jos&Bel, ER. Matxain, Maitane, Maos, Jos&Klaude eta Lourdes Lasa.

Emakumeentzako internet ikastaroa

Interneten hasi nahi dutenentzat eta informatikan ideiarik ez dutenen 30 eta 65 urte bitarteko emakumezko langatuentzat internet ikastaroa eskainiko da Txindoki Alkartasuna Institutuan. Gipuzkoako Foru Aldundiak, Emakundek eta Txindoki Alkartasuna Institutuak finantzatzeko duenez, ikastaroa dohainik izango da. Ikastaroa euskaraz egiteko aukera dago. Ikastaroaren ezaugarriak: 26 ordu jarraituak, astelehenetik ostiralera, urriaren 28tik azaroaren 14ra, 15:00etatik 17:00etara. Izena emateko, 900 101 021 telefono zenbakira deitu behar da. Beasaingo Institutuan ere izena eman liteke: Xabier Olanoz, 943880753.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Azpilikueta (Kale Nagusia, 18 - Beasain). 943 880152.
Urriak 19-20: Urbizu (Kale Nagusia, 8 - Beasain). 943 880232.
Urriak 26-27: Atorrasagasti (Bustuntza auzoa - Ordizia). 943 882938.
Azaroak 2-3: Azpilikueta (Kale Nagusia, 18 - Beasain). 943 880152.

GERTU abokatuak



• AHOIKULARITZA JURIDIKOA
 • ENPRESA ZERBITZUAK
 • ASEGURUAK

BEASAIN
 gertu.asesoria@terra.es
 www.gertuasesores.com
 Kale Nagusia, 2
 Telf: 943 16 21 92
 Faxa: 943 88 36 33

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua
 Elkargokide zenbakia: E-2644
 RPS: 42095

JM Arana, 1 - 2. esk. esk.

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

AURRE ZITA
 ☎ 943 887 221
 ☎ 610 020 041

BEASAIN



LADA
 Ssang Yong

N-1, z/g
 ☎ 943 88 09 47

ARANDIA
 Garajea

AUTOEN KONPONKETA

Iurre Auzoa
 OLABERRIA

IKASTEK AKADEMIA 2002-2003 IKASTURTEA

Goierriko akademia integral bakarra. Hezkuntzako profesionalek zuzendua

ESKOLA LAGUNTZA

- * Goi eta maila guztiak
- * Lehen hezkuntza, DBH
- * Batxilergoa
- * Moduluko, Zikloak
- * Unibertsitate-maila

GOIERRIKO UNIBERTSITATEA

- * Marrazketa teknika
- * Fisika
- * Matematika
- * Teknologia

TAILERRAK

- * Ortografia
- * Irakurmena
- * Idazmena
- * Testu komentaketa
- * Matematika
- * Logika, Kalkulua

IKASKETA ARAZOAK

- * Errendimendua
- * Atentzioa
- * Ohiturak
- * Metodoak
- * Emozioen kontrola

Joan Iturralde, 5 BEASAIN ☎ 943 160 120

ikastekakademia@latinmail.com

Etxebizitzak

salgai

➔ Ordiziako Urdaneta kalean pisua salgai. 2 logela, egongela, sukaldia eta bainugelarekin. 943885664.

➔ Errioxan etxebizitza salgai, bere lursailarekin. 2 pisu eta atikoarekin. Aukera ezin hobe. 629223722.

➔ Legorretan pisua salgai. Txabola ere badu. Prezio onean. 670422051.

➔ Idiazabalen etxebizitza salgai, garajearekin. 605735042.

➔ Etxebizitza salgai Itsasondan. 3 logela, egongela, sukaldia, bainugela eta ganbara. 943674713.

➔ Etxebizitza salgai Beasainen. 3 logela. Baratz. Plazatik minutu batera. 943885751.

➔ Beasainen pisua salgai. Berritzeko. 605772243.

errentan eman

➔ Urbasako mendilerroan etxea alokatzen da asteburu, zubi eta oporretan. 948533981.

errentan hartu

➔ Ordizian eta inguruan, pisu bat behar da alokairuan. 656760284.

➔ Bikote gazte euskaldunak pisua behar du alokairuan Zarautzen, urte osorako. 610738055. Unai.

Garajea

salgai

➔ Beasaingo Foru kalean auto bat sartzeko garajea salgai. 943027761.

Negozioa

salgai/alokairuan

➔ Sagardotegia alokatzen da jubilazioagatik. Bezero finkoa. Errendimendu ona. Pertsona arduratsua eta esperientziaduna eskatzen da. Informazio pertsonala 676049931.

➔ Liburudenda alokatzen edo saltzen da Beasainen. 616698236.

Hizkuntza trukea

➔ Ingeles mintza praktika egingo nuke, gaztelera edo euskara mintzatu nahi duen norbaitekin. 943161476. Lurdes.

Bestelakoak

salgai

➔ VW Transporter bat atzealdeko eserlekuak salgai. Bat bikotiza eta bestea bakarkakoa. Berri-berriak. 606806513.

➔ Ontzi garbigailua edo lababajilla salgai. Erabili gabea. Merke. 652722638.

➔ Gaixoak oheratzeko garabia edo grua salgai. Oso egoera onean. 943084546.

➔ Egurra salgai. Iharra eta ondo txikitua. Pagoa eta haritza. Entrega etxera. 943883410.

➔ Monopoli tycoon eta Rally champion ship ordenadoreko jokoak salgai. Oso egoera onean. 60 euro. 943885749. Iluntzetan deitu.

➔ Seat Toledorentzako barrak, portaeskiak, portabizikletak salgai. 90 euro. 635706569.

➔ Audio CD grabadora salgai. Oso egoera onean. 35 CD opari. 943027903. Anjel.

➔ Ezkontzako soinekoa salgai. 2002ko uztailean erabilia. Aurtengo linea sentzilloa eta elegantea. Esku larruak ere bai. Dena 1.200 eurotan. 686788017 - 943363996. Arantxa.

Animaliak

opari

➔ Txakurkumea opari. 943889217.

➔ Katu helduak eta katakumeak opari, ardua handiko pertsonen. 943888171.

salgai

➔ Espaniel breton arrazako 4 txakurkume salgai. 2 hilabeteak. 943801424.

➔ Hamar ardi eta bi ahari salgai. Bere kuponarekin. 651703224 - 943160479.

 **mazda**
Bikar, S. A.



☎ 943 889 296 Faxa: 943 887 952
N-1 errepidea, 419 Kma **BEASAIN**

VOLVO
 **TOYOTA**



ŠKODA
Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN

**"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"**



K. Nagusia 35 Elosegi, 14 Sta. Maria, 19
☎ 943 88 77 58 ☎ 943 88 72 79 ☎ 943 16 00 44
BEASAIN LAZKAO ORDIZIA

Ibilgailuak

salgai

➔ Renault 19 - Driver 1.9 D salgai. 6 urte eta erdi. 699113149.

➔ Peugeot 309 autoa salgai. 1900 diesela. SS-AH. 943028577.

➔ Golf GTI 2.0 salgai. 3. edizio berezia. Aire egokitua eta extra ugari. SS-AT, 110.000 km. Oso ondo zaindua. 658747902.

➔ Honda CBR 600 motorra salgai. SS-AJ. Egoera onean. 1.800 euro (300.000 pezeta). 620 227 773.

➔ Opel Monterrey todoterreno salgai. 9 urte. Egoera onean. 1.100.000 pezeta. 656723131.

➔ Renault Clio 1700 salgai. 3 atekoa. Berdea. SS-AM. 615783362. Jexux Mari. Gauean deitu, 8etatik 9etara.

Lana

eskaerak

➔ Asteburuetarako zerbitzaria beha da. 943880044.

➔ Gozogintza edo pasteleria ogibidea ikasiko duen pertsona behar da. Lanean berehala hasteko. 653735330. Jon.

➔ Okin ogibidea ikasiko duen pertsona behar da. Lanean berehala hasteko. 686454903. Mikel.

➔ Neskak behar dira dendetarako. 686454698. Ana.

➔ Pertsona euskalduna behar da Ormaiztegi-ko taberna batean asteburuetan lan egiteko. Esperientziaduna bada hobe. 943886577 - 943160205.

➔ Okindegi baterako saltzailea behar da. 615749901.

➔ Altzagan pertsona bat behar da fregadera-ko lanak egiteko larunbat gauean eta igande batzutan. 615700408.

eskaintzak

➔ Neska bat eskaintzen da hurrengo urtean arratsaldeetan lan egiteko. Umeak zaintzen edo dendan. 606598100.

➔ Beasaingo 25 urteko neska prest dago arratsaldeetan haurrak zaintzeko. 686374559. Sonia.

Langai

Euskal Lan Zerbitzua
Eusko Jaurlaritza

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

Goierriko Herrien Ekintza

943 884 401

GALDARAGILEA

Goierri. Erref. 87756/5

ADMINISTRARIA

Goierri. Erref. 89464/1

GAI KONPOSATUETAKO LANGILEA

Urola Garaian. Erref. 88868/4

GALDARAGILE SOLDEATZAILEA

Goierri. Erref. 87661/4

PEOI ELEKTRIZISTA

Ormaiztegin. Erref. 89393/1

ERREBABATZAILEA

Tolosan. Erref. 89393/1

ELEKTRIZISTA

Tolosaldean. Erref. 86538/5

SUKALDARIA

Tolosan. Erref. 88692/4

ERAIKUNTZA KAMIOI GIDARIA

Goierri. Erref. 89082/4

SUKALDARIA

Tolosan. Erref. 88692/4

ADMINISTRARIA

Tolosaldean. Erref. 88868/5



Berogintza

Iturgintza

Gasa

Klimatizazioa

Tel.: 943 161 277 Faxa: 943 160 933

Nafarroa Etorbidea, 27

BEASAIN

Tailerra: Okorro, 6 - ORDIZIA

ONGI ETORRI taberna - jatetxea

Eguneroko menua
eguerdi eta gauetan
larunbatetan ere bai

Afariak
bataioak
jaunartzeak

Tel: 943 88 99 07

Oriamendi, 40 BEASAIN

SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)



ZEGAMA

OKINDEGIA

Eskuz egindako
ogi naturala

943 80 10 66

Olaberria Kalea, 6 ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:

Beasainen: Montoia harategia, Erosle, Oskarbi, Haritza, Osiña.

Ordizian: Altamiran, Martina Bustuntzan, Osasun belardenda, Muño denda Urdanetan

Zegaman: Kooperatiba, Maria Jesusen denda, Arrondo.

Segurako Erosle, **Idiazabal** go Ahizpak eta **Ormaiztegi**ko Iñaki Erosle.



CAF-eko ikasleak 1962an

Zaldibiako Arotxaneana ateratako argazkia da, 1962ko urtarrilaren 31n San Joan Bosco ospatzen ari zirenean.

Argazki zaharrak behar ditugu: GOIERRITARRAn argitaratzeko argazki zaharren bat baduzu Ordiziako Santa Maria kaleko 4.enean gaude edo 943 889 612 telefonora deitu. Argazki guztiak itzultzen ditugu.



Abokatuak
Enpresen
asesoria eta
gestioa

e txekin

www.txekin.net

Etxebizitzen salmenta:

Legorreta
Beasain
Orendain

Tel/Faxa: 943 162 393 e.posta: zuzenki@euskalnet.net Elosegi, 16 LAZKAO

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak



943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN



MUJKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
943 88 11 94
ORDIZIA




Barandiaran
ZERAMIKAK



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

943 88 79 72 **Senpere, 7 BEASAIN**



HARRIA GRESAK

BAINUGINTZAKO PROFESIONALAK

jantzi
galaz
zure
bainugelak



HARRIA GRESAK

**Diseinuan beti
aintzindari**

*Bisita gaitzazu eta ezagutu
bainugintzako azken moda*

Tel.: 943 88 54 66 Faxa: 943 16 19 75

Zelaeta, 1 BEASAIN


**Kanaloiak
Bajanteak
Fatxadak**

...



**Pintura
Teilatuak
Tximiniak**

...



Tfnoa.: 605 712 018

Ezkurdiategi Etxea

ATAUN



Zure Ohea janzten dugu

Oheak eta osagaiak - Zorro nordikoak - Burukoak - Izarak



Koltxoi-estalkiak - Alfonbrak - Kutxinak - Gortinak



Besaulki mantak - Luma edo fibrazko nordikoak

SF 300 - Motion Line berria



SWISSFLEX®

GOIERRIKO BANATZAILE OFIZIAL BAKARRA

-20%

LATEXEZKO SILVER EDITION Koltxoietan
2002 - 12 - 14.erarte



SILVER EDITION Koltxoia



SF 300 In Motion

Zatoz ikustera, eta Audi TT bat irabazteko aukera izango duzu